



TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA (2024ko iraila)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- Lege-proiektua, Estatuko Administrazioaren Funtzio Publikoarena.

2024ko uztailaren 23an egindako bileran, Ganberako Mahaiak bere onarpena agindu zion Ogasun eta Funtzio Publikoaren Batzordeari, legegintzako eskumen osoz, Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofizialean argitaratzea, eta zuzenketak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzea.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-31-1.PDF#page=1

- Lege Organikoaren proiektua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzen duena, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari dagokienez.

2024ko uztailaren 17an egindako bileran, Ganberako Mahaiak erabaki zuen izapidetzeko onartzea, Gorte Nagusietako aldizkari ofizialean argitaratzea eta, Diputatuen Kongresuko Lehendakariak 1993ko martxoaren 16ko Autonomia Estatutuen erreforma izapidetzeko prozedurari buruz emandako Ebazpenaren hamahirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea, baina ez da zuzenketak aurkeztea onartuko.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-30-1.PDF#page=1

- Lege-proiektua, Estatuko Osasun Sistemaren ekitatea eta kohesioa sendotzeko zenbait arau aldatzen dituena.

2024ko ekainaren 25ean, Ganberako Mahaiak bere onarpena agindu zion Garraio eta Osasun Batzordeari, legegintzako eskumen osoz eta premiazko prozeduraren bidez, Erregelamenduaren 148. eta 93. artikuluei jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofizialean argitaratzea, eta zuzenketak egiteko zortzi egun balioduneko epea ezartzea.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-29-1.PDF#page=1



BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **2024/1716 (EB) Gomendioa, 2024ko ekainaren 19koa, Batzordearena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1791 (EB) Zuzentarauaren 5., 6. eta 7. artikulua interpretatzeko jarraibideak ezartzen dituen, sektore publikoko energia-konsumoari, eraikin publikoak berritzeari eta kontratazio publikoari dagokienez [C (2024) 3744 zenbakiarekin jakinarazita]. (2024ko ekainaren 28ko DOUE)**

Europako Batzordeak, Europar Batasunaren aldizkari ofizialean 2024ko ekainaren 28an argitaratutako gomendioaren bidez, zenbait jarraibide prestatu ditu estatu kideei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1791 (EB) Zuzentaria interpretatzen eta aplikatzen laguntzeko.

2023/1791 (EB) Zuzentaria horrek Europar Batasuneko aurreko araudia aldatu zuen (2012/27/EB Zuzentaria edo aipatutako 2012ko Zuzentaria), eta aldaketa batzuk egin zituen energia-efizientziaren arloko eskakizunen irismenean, kontratazio publikoa energiaren ikuspegitik eraginkorra izan dadin.

2023/1791 (EB) Zuzentariaren 7. artikulua aldatu egin da, 2012ko Zuzentariaren 6. artikulua baliokidearekin alderatuz gero. 7. artikulua lehengo helburu bera du oraindik ere: energia-errendimendu handia ezartzea kontratazio publikoaren betekizun gisa. Hala ere, 6. artikulua erekin alderatuta, aplikazio-eremua zabaldu egin da.

Aldaketa horren arabera, orain eskatzen da Kontratazio Publikoaren Zuzentarietan (2014/23/EB, 2014/24/EB eta 2014/25/EB) ezarritako balio zenbatetsiaren atalaseak berdindu edo gainditzen dituzten kontratu publiko guztiak (aurreko bertsioan sartzen ez diren obrak barne) energia-errendimendu handia duten produktuak, zerbitzuak, eraikinak eta obrak eskuratzeko izatea.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2024-81001>

- **Administrazioa zugandik gertu, prentsa-oharra. (2024ko uztailaren 1a)**

«Administrazioa zugandik gertu» Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren zerbitzu bat da. 2022ko azaroan sortu zen, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin (FEMP) lankidetzaren hitzarmen bat sinatuta.

Hitzarmenaren helburua da tresnak eta mekanismoak ezartzea, lurralde-administrazioekin lankidetzan, herritarrak udalerritik txikitatik Estatuko Administrazio Orokorren probintzia-egoitzetara joan beharrik ez izateko eta arrakala digitala gainditzeko, langile publiko kualifikatuen la-



guntzaz. Langile horiek, herritarren bizilekuetara joanda, informazioa emango diete eta kudeaketak egiten lagunduko diete, hala nahi badute, adibidez, ziurtagiri digitala eskuratzen lagunduko diete.

Gaur egun, uztailaren 1eko prentsa-oharraren arabera, orain arte, zerbitzua 8.000 biztanle arteko landaguneetara baino ez zen iristen, herritarren zerbitzu publikoetarako irispidean berdintasuna bermatzeko konpromisoa betetzeko, bizi diren tokian bizi direla, baina esperientziak agerian utzi du jarduketa-eremua zabaldu egin beharko litzatekeela zerbitzu publiko jakin batzuk eskuratzeko erraztasunik ez duten biztanle gehiagoko hiriarteko guneeetara ere.

Programak herritarrek gehien eskatzen dituzten zerbitzuak hartu nahi ditu bere baitan; hala, «Administrazioa zugandik gertu» zerbitzuko saioetan sartu dira erakunde hauek: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE), Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN) edo Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Zerbitzu hori sendotzeko, ezinbestekoa da udalen konpromisoa. Hori dela eta, idazkari nagusiak gogorarazi du udalerrri berriak hitzarmenera atxikitzea sustatu nahi duela, eta helburu hori lortzeko bertaratutako guztien laguntza eskatu du.

https://mpt.gob.es/dam/es/portal/prensa/notas_de_prensa/notas/2024/07/20240701_DP2.pdf

- Ebazpena, 2024ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den finantza-zuhertasuneko printzipioa definitzekoa. (2024ko uztailaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/05/pdfs/BOE-A-2024-13672.pdf>

- 3870-2024 eskumen-gatazka positiboa, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren 2024ko otsailaren 27ko Ebazpenaren aurkakoa, 2003ko uztailaren 8ko Ministro Aginduaren bidez emandako emakida iraungitzat jotzen duena. (2024ko uztailaren 9ko BOE)

Konstituzio Auzitegiaren osoko bilkurak, 2024ko uztailaren 2ko probidentziaren bidez, erabaki du izapidetzeko onartzea 3870-2024 eskumen-gatazka positiboa, Kanarietako Gobernuak sustatua, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren 2024ko otsailaren 27ko Ebazpenaren arkakoa. Ebazpen horren bidez, iraungitzat jotzen da 2003ko uztailaren 8ko Ministro Aginduaren bidez Geafond Número Uno Lanzarote SA merkataritza-erakundeari jabari publikoa (itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan dauden «Hotel Oliva Beach» eta «Apartamentos Oliva Beach» hotel-establezimenduek hartzen dituzten lursailak) okupatzeko



eta aprobetxatzeko emandako emakida, Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz. Lursail horiek 1992ko maiatzaren 22ko Ministro Agindua La Oliva udal-mugaratean (Fuerteventura) onartutako mugaketaren arabera itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan sartuta daude.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/09/pdfs/BOE-A-2024-14003.pdf>

- **Ebazpena, 2024ko uztailaren 4koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzarena, interesdunek Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzari atxikitako Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin dituzten harremanetan sinadura elektronikoz ez-kriptografikoa erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen. (2024ko uztailaren 12ko BOE)**

Ebazpen honen xedea da interesdunek Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzari atxikitako Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin dituzten harremanetan sinadura elektronikoz ez-kriptografikoa erabiltzeko baldintzak zehaztea, hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan oinarrituta.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/12/pdfs/BOE-A-2024-14211.pdf>

- **HAC/739/2024 Agindua, uztailaren 2koa, Estatuaren Kontu Orokorraren Lanketa arautzen duen uztailaren 31ko HAP/1724/2015 Agindua aldatzen duena. (2024ko uztailaren 19ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/19/pdfs/BOE-A-2024-14836.pdf>

- **2/2024 Zirkularra, uztailaren 8koa, Estatuko Administrazioari Esku-hartzaitza Nagusiarena, kontu-hartzaitzako eginkizunari buruzko jarraibideak ematen dituen apirilaren 30eko 3/1996 Zirkularra aldatzen duena. (2024ko uztailaren 19ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/19/pdfs/BOE-A-2024-14837.pdf>

- **4925-2024 konstituzio-contrakotasuneko errekurtsioa, abenduaren 27ko 17/2023 Legearen artikulua bakarrik hamaika, hamabi, hamabost, hamazazpi eta hogeita bi bis zenbakien aurkakoa. Lege horrek Madrilgo Erkidegoko genero-identitatearen eta -adierazpenaren eta berdintasun sozialaren eta diskriminaziorik ezaren martxoaren 29ko 2/2016 Legea aldatzen du, lege horren 13.3, 14.2.b), 23.1.f), 30.5 eta 47.d) artikulua aldatzen baititu. (2024ko uztailaren 22ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-14994.pdf>



- 4926-2024 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua, abenduaren 27ko 18/2023 Legearen artikulua bakarraren hamalau ter zenbakiaren aurkakoa, 3/2016 Legearen 65. artikulua idatzera berriaren d apartatuari dagokionez. 18/2023 Legeak Madrilgo Erkidegoan LGTBifobiaren eta sexu-orientazio eta -identitateagatiko diskriminazioaren aurkako babes integralari buruzko uztailaren 22ko 3/2016 Legea aldatzen du. (2024ko uztailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-14995.pdf>

- 2940-2024 inkonstituzionaltasun-arazoa, errege lege-dekretu honen 128.artikuluko zarpigarren apartatuaren eta hamargarren xedapen iragankorraren aurkakoa (6/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan), Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua balioko urraketagatik. (2024ko uztailaren 22ko BOE)

2024ko uztailaren 16ko probidentziaren bitartez, Konstituzio Auzitegi osoko bilkurak izapidezko onartu du 2940-2024 inkonstituzionaltasun-arazoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 3. sekzioak 529-2022 prozedura arruntan planteatutakoa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazteko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 128. artikulua zarpigarren apartatuarekin eta hamargarren xedapen iragankorarekin lotuta, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua urra dezaketelakoan, eta Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 10.1.c) artikuluan ezarritakoa betez, auzitegi horrek beretzat gordeko du auzi horren ardurara.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-14996.pdf>

- Ebazpena, 2024ko uztailaren 24koa, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez errege-lege dekretu honen 41.1.a) artikuluan xedatutakoa betetzen baita: 17/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-jasangarritasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoari buruzkoa. (2024ko uztailaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/30/pdfs/BOE-A-2024-15660.pdf>

- Ebazpena, 2024ko abuztuaren 7koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzeko den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzekoa. (2024ko abuztuaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/09/pdfs/BOE-A-2024-16509.pdf>



Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- ***Códigos de conducta en las entidades locales: estado de la cuestión***, Rafael Jiménez Asensio (Acento Local blogean argitaratua, 2024ko uztailaren 24an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/codigos-de-conducta-en-las-entidades-locales-estado-de-la-cuestion/>

- ***La impugnación de actos de las entidades locales por los miembros corporativos según la doctrina del Tribunal Constitucional***, David Cabezuelo Valencia (Acento Local blogean argitaratua, 2024ko abuztuaren 21ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-impugnacion-de-actos-de-las-entidades-locales-por-los-miembros-corporativos-segun-la-doctrina-del-tribunal-constitucional/>

- ***Los proyectos normativos gestados para mitigar los efectos de la nulidad de los planes urbanísticos***, Fernando Luque Regueiro (Acento Local blogean argitaratua, 2024ko abuztuaren 28an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/los-proyectos-normativos-gestados-para-mitigar-los-efectos-de-la-nulidad-de-los-planes-urbanisticos/>

- ***Avances en el control judicial de la discrecionalidad técnica en los procedimientos selectivos. Sentencia del Tribunal Supremo 942/2024***, Noelia Betetos Agrelo (Acento Local blogean argitaratua 2024ko abuztuaren 30ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/avances-en-el-control-judicial-de-la-discrecionalidad-tecnica-en-los-procedimientos-selectivos-sentencia-del-tribunal-supremo-942-2024/>

- ***Algunas ideas para mejorar la tributación de las corporaciones locales***, Juan José Rubio Guerrero (Acento Local blogean argitaratua, 2024ko irailaren 4an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/algunas-ideas-para-mejorar-la-tributacion-de-las-corporaciones-locales/>

- ***De nuevo sobre la temporalidad en el empleo público: ¿han funcionado los procesos de estabilización?***, Federico Castillo Blanco (Acal blogean argitaratua, 2024ko uztailaren 16an)

https://www.acalsl.com/blog/2024/07/procesos_estabilizacion_empleo_publico



- ***Caducidad y reintegro de subvenciones: la doctrina del doble tiro***, Federico Castillo Blanco (Acal blogean argitaratua, 2024ko uztailaren 31n)

<https://www.acalsl.com/blog/2024/07/caducidad-reintegro-de-subvenciones>

- ***La responsabilidad penal de las sociedades municipales***, Diego Barnuevo (Acal blogean argitaratua, 2024ko uztailaren 5ean)

<https://www.acalsl.com/blog/2010/07/la-responsabilidad-penal-de-las-sociedades-municipales>

- ***Las cofradías de pescadores no tienen la consideración de oficinas de registro públicas excepto que una disposición estatal o autonómica así lo establezca*** (AGE 2024/05/27), Diego Gómez Fernández (egilearen «Es de Justicia» blogean argitaratua, 2024ko ekainaren 13an)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/las-cofrad%C3%ADas-de-pescadores-no-tienen-la-consideraci%C3%B3n-de-oficinas-de-registro-p%C3%BAblicas-excepto-que>

- ***El régimen jurídico de las notificaciones en el ámbito local***, José Manuel Bejarano Lucas (CEMCI aldizkari digitalaren 62. zenbakian argitaratua, 2024ko uztailaren 30ean)

<https://revista.cemci.org/numero-62/pdf/trabajos-de-evaluacion-1-el-regimen-juridico-de-las-notificaciones-en-el-ambito-local.pdf>

- ***Minusvalía vs plusvalía municipal***, Patricia Sánchez Martín (CEMCI aldizkari digitalaren 62. zenbakian argitaratua, 2024ko uztailaren 30ean)

<https://revista.cemci.org/numero-62/pdf/trabajos-de-evaluacion-4-minusvalia-vs-plusvalia-municipal.pdf>

- ***Análisis de la relación de puestos de trabajo como instrumento de planificación estratégica en la administración local***, Daniel Burillo Rodríguez (CEMCI aldizkari digitalaren 62. zenbakian argitaratua, 2024ko uztailaren 30ean)

<https://revista.cemci.org/numero-62/pdf/trabajos-de-evaluacion-3-analisis-de-la-relacion-de-puestos-de-trabajo-rpt-como-instrumento-de-planificacion-estrategica-en-la-administracion-local.pdf>



Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- De nuevo sobre el plazo de resolución contractual: ¿son tres u ocho meses el plazo establecido para la resolución contractual en el caso de las Comunidades Autónomas y los Entes Locales?, Federico Castillo Blanco (Acal blogean argitaratua, 2024ko irailaren 2an)

<https://www.acalsl.com/blog/2024/09/plazo-resolucion-contractual-caducidad>

- Nuevas perspectivas de la libre competencia, José Enrique Candela Talavero (ObCP blogean argitaratua, 2024ko irailaren 2an)

<https://www.obcp.es/opiniones/nuevas-perspectivas-de-la-libre-competencia>

- El uso de la IA generativa en la contratación pública para detectar prácticas anticompetitivas, Manuel J. García Rodríguez, Enrique J. Benítez Palma (ObCP blogean argitaratua, 2024ko uztailaren 29an)

<https://www.obcp.es/opiniones/el-uso-de-la-ia-generativa-en-la-contratacion-publica-para-detectar-practicas>

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordea

- 40/23 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Ezpondak egonkortzeko eta luiziak kontrolatzeko sektoreko enpresa-sailkapenei buruzko kontsulta.

Aholku Batzordeak ondorioztatu duenez, nagusiaz bestelako azpitaldeetako obra-motekin pareka daitezkeen berezitasun ez-normalik edo orokorrik ez dutenez, obra-kontratuaren objektuan sartzeak ez du esan nahi dagokion taldeko azpitalde generikoa edo nagusia ez den beste azpitalde batean sailkatuta egon behar denik. Beraz, eta alde batera utzita kontratuaren objektuan jasotako gainerako jardueretatik eratorritako azpitaldeetan sailkatzeko eskakizunak, kasu bakoitzean dagokion azpitalde generikoa eskatuko da, APKLEOren 36.2 artikulua aplikatuz.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/info_rme402023aeeettaludes.pdf



- **21/2024 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Gauzatu behar diren oinarritutako kontratuak mugatzeko kontzeptu erabakigarria: eman behar den ondasunen kopurua edo balio zenbatetsia.**

Aholku Batzordeak ondorioztatu duenez, enpresaburu bakar batekin egindako esparru-akordioetan, kontratuen objektua, SPKLaren 16.3.a artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Administrazioaren premien arabera finkatzen bada, esparru-akordioetan oinarrituta gauzatu behar diren kontratuen muga gehieneko balio zenbatetsia izango da, hasieran aurreikusitako hornikuntza-kopurua gainditzen den edo ez kontuan hartu gabe.

Halaber, ondorioztatzen duenez, enpresaburu bakar batekin egindako esparru-akordioetan, esparru-akordioak zuzenean edo proiektu jakin baten bidez egin behar diren prestazioen gehieneko muga ezartzen badute, esparru-akordioa azkendu egingo da aurreikusitako prestazioak lortu ondoren, nahiz eta esparru-akordioan aurreikusitako gehieneko balio zenbatetsira iritsi ez, eta, prestazio horiek bete ondoren, ezingo dira kontratu berriak esleitu, baldin eta horien esleipenak esparru-akordio hori funtsean aldatzen ez badu, 2014/24 Zuzentarauaren 72. artikulua 1. apartatuko e) letran aurreikusten den moduan.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informeme212024ministeriodefensacontratosbasados.pdf>

- **15/2024 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuaren prezioen salbuespenezko berrikuspena aplikatzea, enpresaburu partikularrekin egindako lankidetzakontratuen bidez arautzen diren larrialdikotzat jotako obrei.**

Batzordeak ondorioztatu duenez, SPKLaren 30. artikuluan eta APKLEOren 176. artikuluan arautzen diren enpresaburu partikularrekin egindako lankidetzakontratuen bidez arautzen diren larrialdikotzat jotako obrak martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuaren II. tituluaren aplikazio-eremuaren barruan daude, kontratu horiek SPKL indarrean jartzen denetik aurrera obra-kontraturako aurreikusitako araubidea bete beharko baitute.

Martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako prezioen salbuespenezko berrikuspena aplikatu ahal izateko, lankidetzakontratuek arau horretan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informeme152024aplicacionrdl32022obrasemergencia.pdf>



- 14/2023 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Esparru-akordioetako gastu-muga.

Batzordeak ondorioztatu duenez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziari jarraikiz, SPKLaren 101.13 artikulua araberak kalkulaturako esparru-akordio baten zenbatetsitako gehieneko balioa akordio horretan oinarrituta gauzatuko diren kontratuen muga izango da. Muga hori gaituz gero, esparru-akordioa azkendu egingo da, bete delako, eta gauza bera gertatuko da gehieneko iraupenera iristen bada. Hala ere, eta jurisprudentzia horri jarraikiz, botere adjudikatu batek kontratu berri bat esleitu dezake, balio zenbatetsia lortu duen esparru-akordio batean oinarrituta, betiere kontratu horren esleipenak esparru-akordioan funtsezko aldaketarik eragiten ez badu, SPKLaren 205.2.c artikuluan ezarritako moduan.

SPKLaren 222. artikuluan xedatutakoaren araberak, balio zenbatetsiaren zenbatekoa gaituz baino lehen, posible da SPKLaren 203. artikulutik 207. artikulura bitartean jasotako kontratuen aldaketa arautzen duten arau orokorretako akordioen esparru-akordio bat aldatzea.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/info_rme142023limitedegastoenlosacuerdosmarco.pdf

- 8/2024 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Larrialdi-prozedura aplikatzea lege berezietan jasotako aurreikuspen espezifikotan.

Batzordeak ondorioztatu duenez, Estatuko edo autonomia-erkidegoko lege-lerruneko arau batek SPKLaren 120. artikuluan aurreikusitako larrialdi-izapidetzea aplikatzea aurreikusten duenean premia publiko jakin batzuei erantzuteko hartutako neurrien esparruan izapidetu behar diren kontratazio-espeditentzarako izapidetzeko, haren eginkizuna izan behar da 120. artikuluan aitortutako egoera jakin bat zehaztea (hondamendi-gertaerak, arrisku larria dakarten egoerak edo defentsa nazionalen eragina duten premiak), baina ez da artikulua horretan aurreikusitakoez bestelako egoerarik sartuko, eta aplikatzerakoan artikulua horretan zerrendatutako betekizun orokorrak bete beharko dira.

https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/info_rme82024procedimientodeemergencia.pdf

- 5/2023 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Lizitatuzaileen proposamenak erretiratzea. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzea.

Batzordeak ondorioztatu duenez, Administrazioak ez badu kontratua legez edo kontratu bidez dagokion epean esleitu, lizitatuzaileak, SPKLaren 150. artikulua aipatzen duen dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egiten zaionean, eskaintza erretiratzeko eskubidea baliatu ahal izango du, inolako kalterik jasan gabe, SPKLaren 158.3 artikulua babesean. Eskaintza erretiratzeko, lizitatuzaileak berariazko egintza bat egin behar du, SPKLaren 158.4 artikulua babesean. Beraz, errekerimendua ez badu betetzen, eta ez-betetze hori konpondu ezin bada,



nahiz eta errekerimendua esleipenerako arauan aurreikusitako epetik kanpo egin, ulertu behar da justifikaziorik gabe erretiratu duela eskaintza, eta SPKLaren 150.2 artikuluan aurreikusitako zigorra ezarri ahal izango zaio.

Baldin eta adjudikaziodunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua emandako epean formalizatzeko betebeharra betetzen ez badu, jokabide horrek legez aurreikusitako ondorioa ekarriko du, hau da, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa, eta kontratatzeke debekua ezarriko zaio, nahiz eta Administrazioak aurrez kontratua epe barruan esleitzeko betebeharra bete ez.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe52023asturias.pdf>

- 1/2023 txostena, 2024ko uztailaren 2koa. Gaia: Lizitatzailen proposamenak erretiratzeko epea.

Batzordeak ondorioztatu duenez, SPKLaren 158.4 artikuluan xedatutakoaren babesean lizitatzailak bere proposamena erretiratzeko duen eskubidea balia daiteke Administrazio kontratatzaileak kontratua esleitzeko emandako epea betetzen ez duen unetik kontratua esleitzen den arte, nahiz eta esleipena garaiz kanpo egin. Ezin izango du SPKLaren 158.4 artikuluan babesean proposamena erretiratzeko eskubidea baliatu, kontratua esleitu ondoren. Kontratu baten adjudikaziodunak kontratua esleitu ondoren proposamena erretiratzen badu, SPKLaren 153.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, baita SPKLaren 158. artikuluan arabera ezarritako epean kontratua esleitzeko betebeharra bete ez bada ere.

<https://www.hacienda.gob.es/dgpatrimonio/junta%20consultiva/informes/informes2024/informe12023ayuntamientodeplasencia.pdf>

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

- 793/2024 Ebazpena, 2024ko ekainaren 20koa. 359/2024 errekurtsua.

Auzitegiak adjudikazio-irizpide sozialei buruzko doktrina gogorarazi nahi du:

- Irizpide sozial gehienak kontratuaren objektu den prestazioan esku hartzen duen giza faktoreari buruzkoak dira. Dena den, prestazioan pertsonak esku hartze hutsak ez du inplizituki zehazten adjudikazio-irizpide sozial bat ezarri ahal izatea.

Hori posible izan dadin, langileek beren lana egiteko izango dituzten baldintzak erabakigarriak izan behar dira kontratua gauzatzean kalitatea lortzeko, kontratuaren objektu den prestaziorako. Baldintza horiek adjudikazio-irizpideen bidez baloratuko dira eta eskaintzaren



osagai izango dira. Kasu horretan, adjudikazio-irizpide gisa erabil daitezke, baldin eta kontratua gauzatzerakoan kalitatea lortzeko erabakigarriak badira. Azken alderdi hori Zuzentarauaren 67. artikuluan zehazten da, hau da, zehaztu egiten da kontratuaren betearazpenerako noiz izan dezakeen eragin nabarmena.

Ezingo dira adjudikazio-irizpidetzat hartu, kontratuaren objektua kontuan hartuta, eskaintzak errendimenduaren arabera konparatzeko biderik ematen ez duten irizpideak, betearazpen-kalitateari eragiten ez diotelako, eta beraz, ez diotelako kontratazio-organoari aukerarik ematen eskaintza hori «eskaintza ekonomiko onuragarriena» den ala ez erabakitzeko.

Era berean, premisa hori kontuan hartuta, zerbitzua emango duen plantillari dagozkion adjudikazio-irizpideak soilik onartuko dira, ez plantilla osoari dagozkionak.

- Kontratu publikoen adjudikazio-irizpideei oro har eskatzen zaizkien gainerako baldintzak ere bete behar dituzte.

Kasu jakin honetan, osasuna kontrolatzeko eta hobetzeko prebentziozko kudeaketa-plan bat edukitzeari buruzko irizpideak zein gizarteratzeko plan bat edukitzeari irizpideak, ez dute zerikusirik kontratuaren objektuarekin, ez baitituzte kontratuaren objektua osatzen duten prestazioak hobetzen.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200359-2024%20\(res%20783\)%2020-06-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200359-2024%20(res%20783)%2020-06-2024.pdf)

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiak

- **Madrilgo Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiaren 150/2024 Akordioa (2024ko apirilaren 11).**

Auzitegiak honako hau ondorioztatu du: Eztabaida nagusia da zehaztea aplikatu behar den hitzarmenaren arabera langileak subrogatzeko betebeharra dagoen ala ez. Gai horrek ez du konponbide argirik, baizik eta interpretatu egin behar da. Bada, kontratazio-organoak azaldu duen bezala, Udalari eta Auzitegi honi ez dagokie hitzarmena interpretatzea, nahiz eta horri buruzko doktrina eta jurisprudentzia ugaria izan, baizik eta lan-arloko jurisdikzioaren eskumena da. Horregatik, desadostasun horiek jurisdikzio-ordena horretan planteatu behar dira.

<https://www.comunidad.madrid/tacp/resolucion/1502024>



Kontratazio Publikoa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea

- Urteko Ikuskapen Txostena. 2024.

Txosten horretan (1. modulua) egindako analisiaren arabera, tokiko sektore publikoaren jarduerak nabarmen egin du behera 2023ko ekitaldian. Estatuko eta autonomia-erkidegoko sektoreek, berriz, gora egin zuten, toki-erakundeek murriztu egin zuten bai lizitazioetan bai esleipenetan zuten partaidetza.

Era berean (2. modulua), erakunde honek ohartarazten du «kontratuaren gauzapena eta bete-arazpena segurtasun juridikorik ezaren sorburu segurua dela, eta, konponduz joan beharrean, gero eta zalantza gehiago sortzen dituela». Hori oinarri hartuta, bi gomendio ematen ditu:

- Legegileari dagokionez, honako hau proposatzen du: «Araua interpretatzeko sor ditzakeen zailtasunei buruzko premiazko hausnarketa-prozesua hastea, ondoren erregulazioa hobetzeko».
- Organo aholku-emaleei dagokienez, koordinazio-kanal bat ezartzea iradokitzen du, interpretazioa uniformeagoa izan dadin, bereziki, segurtasun juridikorik ezaren arloko punturik sentikorrenei dagokienez.

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIReScon/informe-anual-supervision-2024/ias2024-modulo1.pdf>

<https://www.hacienda.gob.es/RSC/OIReScon/informe-anual-supervision-2024/ias2024-modulo2.pdf>



Kontuen Auzitegia

- Tokiko sektore publikoaren fiskalizazio-txostena. 2022ko ekitaldia.

Konstituzio Auzitegiak gomendio hauek bidali dizkie toki-erakundeetako arduradunei:

- Tokiko enpresa-sektore publikoa berrantolatzea, eta, bereziki aipatzen ditu aktibo ez dauden edo desagiten ari diren erakunde instrumentalak, bai eta behin eta berriz galera esanguratsuak dituzten edo ondare-desoreka egoeran dauden merkataritza-sozietateak ere, mendeko erakunde horien iraunkortasuna aurrekontu-arrazionaltasunaren, -eraginkortasunaren, -egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren irizpideen arabera izan dadin.

- Neurri egokiak hartzea toki-erakundeen aurrekontua tresna eraginkorra izan dadin tokiko sektore publikoko erakundeen ekonomia- eta finantza-jardura planifikatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko, eta legez aurreikusitako epeen barruan onartzen saiatzea.

https://www.tcu.es/repositorio/6cce0c30-648e-43c9-9351-c3dfede6b80e/NR_1578.pdf

Estatistikako Institutu Nazionala

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) bi gidaliburu tekniko berri argitaratu ditu berriki, toki-erakundeen udal-errolda kudeatzeko sistemen eraldaketa digitalerako eta modernizatorako dirulaguntzak izapidetzen laguntzeko. Hauexek dira gidaliburu berriak:

- Nafarroako dirulaguntzen gidaliburu teknikoa.

https://mpt.gob.es/dam/es/portal/prtr/transformacion_digital_modernizacion/ayudas_de_transformacion_digital_modernizacion/convocatoria2023-padron/Guia_requisitos_Subvenciones_PadronOnline_Navarra_21_Jun.pdf.pdf

- Arabako dirulaguntzen gidaliburu teknikoa.

https://mpt.gob.es/dam/es/portal/prtr/transformacion_digital_modernizacion/ayudas_de_transformacion_digital_modernizacion/convocatoria2023-padron/Guia-requisitos-Subvenciones-Padron-Online_Alava_v5_21_Ago.pdf.pdf



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Europako araudia

- 2024/1689 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko ekainaren 13koa, adimen artifizialaren arloan arau harmonizatuak ezartzen dituen eta 300/2008 (EE), 167/2013 (EB), 168/2013 (EB), 2018/858 (EB), 2018/1139 (EB) eta 2019/2144 (EB) Erregelamenduak eta 2014/90/EB, 2016/797 (EB) eta 2020/1828 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen (Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua). (2024ko uztailaren 12ko BOE)

Helburua da barne-merkatuaren funtzionamendua hobetzea eta adimen artifiziala sustatzea, oinarrizko eskubideak, demokrazia, zuzenbidezko estatua eta ingurumen-jasangarritasuna babestuta eta bermatuta adimen artifizialeko sistema berrien aurrean, eta, aldi berean, teknologia berri horren berrikuntza bultzatzea.

Adimen artifizialari buruzko Erregelamendua adimen artifizialeko sistemen erabileren eta jardunbideen araberako arriskuen hierarkian oinarritzen da, eta baldintzak, betebeharrak eta debekuak zehazten ditu kategoria bakoitzaren arabera: arrisku onartezina, arrisku handia, arrisku eskasa eta arrisku txikia.

Adimen artifizialari buruzko Erregelamendua 2024ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean, eta indarrean jarri eta hogeita lau hilabetera guztiz aplikatu behar da, hau da, 2026ko abuztuaren 2tik aurrera. Nolanahi ere:

- a) I. eta II. kapituluak 2025eko otsailaren 2tik aurrera aplikatuko dira;
- b) III. kapituluko 4. atala, V. kapitulua, VII. kapitulua, XII. kapitulua eta 78. artikulua 2025eko abuztuaren 2tik aurrera aplikatuko dira, 101. artikulua izan ezik;
- c) Erregelamendu horretako 6. artikuluko 1. apartatua eta dagozkion betebeharrak 2027ko abuztuaren 2tik aurrera aplikatuko dira.

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2024-81079>



Espainiako legeria

- **2/2024 Errege Lege Dekretua**, maiatzaren 21ekoa, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira langabeziagatik babesaren asistentzia-maila sinplifikatzeko eta hobetzeko, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1158 Zuzentarauaren transposizioa osatzeko (2019/1158 Zuzentaria, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko ekainaren 20koa, gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateragarri egiteari buruzkoa, Kontseiluaren 2010/18/EB Zuzentaria indargabetzekoa). (2024ko maiatzaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/05/22/pdfs/BOE-A-2024-10235.pdf>

- Ebazpena, **2024ko uztailaren 23koa**, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: **4/2024 Errege Lege Dekretua**, ekainaren 26koa, zeinaren bidez neurri jakin batzuk luzatzen baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta eta zerga-, energia- eta gizarte-arloan presako neurriak hartzeko. (2024ko uztailaren 25eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/25/pdfs/BOE-A-2024-15348.pdf>

- **662/2024 Errege Dekretua**, uztailaren 9koa, jabari publiko hidraulikoan dauden urtegiatan Estatuko Administrazio Orokorrek kudeatu behar dituen arro hidrografikoetan, instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duena eta apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duena. (2024ko abuztuaren 1ekoa)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/01/pdfs/BOE-A-2024-15858.pdf>

- **ISM/812/2024 Agindua**, uztailaren 26koa, honako hau aldatzen duena: **ISM/386/2024 Agindua**, apirilaren 29koa, Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezia sinatzea arautzen duena, indarrean jarri aurretik egindako prestakuntza-praktikaldiengatik eta kanpoko praktika akademikoengatik kotizazioa zenbatzeko (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarrian araututa daude praktika horiek, eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu ziren). (2024ko abuztuaren 1ekoa)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/01/pdfs/BOE-A-2024-15859.pdf>

- **2/2024 Lege Organikoa**, abuztuaren 1ekoa, emakumeek eta gizonek ordezkari-tza parekidea eta presentzia orekatua izatekoa. (2024ko abuztuaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/02/pdfs/BOE-A-2024-15936.pdf>



- **2/2024 Legea, abuztuaren 1ekoa, trenbideetako, itsasoko eta abiazio zibileko istripu eta gertakarien ikerketa tekniko egiteko administrazio agintaritz independentea sortzekoa. (2024ko abuztuaren 2ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/02/pdfs/BOE-A-2024-15937.pdf>

- **3/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzekoa eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzekoa. (2024ko abuztuaren 5eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/05/pdfs/BOE-A-2024-16127.pdf>

- **3/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzekoa eta Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzekoa. (2024ko abuztuaren 5eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/05/pdfs/BOE-A-2024-16127.pdf>

Euskal Autonomia Erkidegoa

- **EBAZPENA, 2024ko ekainaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarreko Mahaiarena, Administrazio Elektronikoari buruzko Araua aldatzen duena. (2024ko uztailaren 16ko EHAA)**

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/07/2403457e.pdf>

- **36/2024 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena. (2024ko abuztuaren 6ko EHAA)**

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2403800e.pdf>



Arabako Lurralde Historikoa

- **.10/2024 Foru Araua, uztailaren 10ekoa, 2024rako indarrean dagoen aurrekontuaren neurri osagarriari buruzkoa. (2024ko uztailaren 22ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/082/2024_082_02422_E.pdf

- **20/2024 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluarena, uztailaren 30ekoa. Onespina ematea interes orokorreko 2024rako xedeen esparruko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrendari. (2024ko abuztuaren 7ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/088/2024_088_02543_E.pdf

- **19/2024 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluarena, uztailaren 30ekoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiaren funtzionarioen enplegu baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretua aldatzeari. (2024ko abuztuaren 12ko ALHAO)**

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/090/2024_090_02560_E.pdf

Bizkaiko Lurralde Historikoa

- **74/2024 FORU DEKRETUA, uztailaren 4koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, uztailaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua aldatzekoa (foru-dekretu horren bidez, gobernantza-egitura bat sortzen da eta erregulatu egiten dira administrazioa modernizatzeko eta arintzeko neurriak, Europako Next Generation-EU suspertze-tresnatik datozen europar funtsak exekutatzeko). (2024ko uztailaren 10eko BAO)**

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/07/10/I-741_eus.pdf?hash=aa57691fd9297e0b166c67a5b1e92f22

- **87/2024 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiarena, uztailaren 24koa, hiri eta/edo landa izaerako elementuak dituzten ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartu dituen. (2024ko abuztuaren 5eko BAO)**

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/08/05/I-809_eus.pdf?hash=f2f2eb28c3ebd4f226e7eb66e26088dd



Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- **4/2024 Foru Dekretua**, ekainaren 27koa, ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa, aldatzen duena. (2024ko ekainaren 28ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/06/28/c2404867.pdf>

- **17/2024 Foru Dekretua**, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua sortu eta arautzen duen urriaren 27ko 32/2009 Foru Dekretua aldatzen duena. (2024ko uztailaren 2ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/07/02/c2404820.pdf>

- **18/2024 Foru Dekretua**, ekainaren 25ekoa, interes orokorreko xedeen esparruan mezenasgoko lehentasunezko jarduerak 2024 urterako ezartzen dituena. (2024ko uztailaren 2ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/07/02/c2404822.pdf>

- **20/2024 Foru Dekretua**, uztailaren 23koa, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua arautzen duen abenduaren 19ko 25/2017 Foru Dekretua aldatzen duena. (2024ko abuztuaren 9ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/08/09/c2405682.pdf>

- **484/2024 Foru Agindua**, abuztuaren 7koa, Nekazaritza Lurren Funtsean 2024. urterako sartutako ondasun edo eskubideen lagapenetan gehieneko erreferentzia-balio gisa aplikatu beharreko prezio tipoak zehazten dituena. (2024ko abuztuaren 20ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/08/20/c2405993.pdf>



Nafarroako Foru Komunitatea

- **9/2024 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Kultur Eskubideen urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzen duena. (2024ko uztailaren 26ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/26/pdfs/BOE-A-2024-15431.pdf>

- **10/2024 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. (2024ko uztailaren 26ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/26/pdfs/BOE-A-2024-15432.pdf>

- **11/2024 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena. (2024ko uztailaren 26ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/26/pdfs/BOE-A-2024-15433.pdf>

- **2/2024 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 24koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari buruz hartutako zenbait neurriren indarraldia luzatzen duena. (2024ko abuztuaren 27ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/27/pdfs/BOE-A-2024-17326.pdf>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Andaluziako Autonomia Erkidegoa

- **1/2024 Legea, ekainaren 21ekoa, Andaluziako Osasun Institutua sortzekoa. (2024ko uztailaren 6ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/06/pdfs/BOE-A-2024-13825.pdf>

- **2/2024 Legea, uztailaren 19koa, Andaluziako Aholku Batzordeari buruzkoa. (2024ko abuztuaren 15eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/15/pdfs/BOE-A-2024-16885.pdf>



Aragoiko Autonomia Erkidegoa

- **3/2024 Legea, ekainaren 13koa, pertsonen gaitasun juridikoaren arloan Aragoiko Foru Zuzenbidearen Kodea aldatzen duena. (2024ko uztailaren 15eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/15/pdfs/BOE-A-2024-14392.pdf>

- **4/2024 Legea, ekainaren 28koa, Aragoiko Babes Zibileko eta Larrialdien Kudeaketako Sistemarena. (2024ko uztailaren 23ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/25/pdfs/BOE-A-2024-15350.pdf>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

- **1/2024 Lege Dekretua, martxoaren 22koa, Balear Uharteetako presako osasun-jarduera emergentearen zenbait alderdi arautzen dituena. (2024ko uztailaren 4ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/04/pdfs/BOE-A-2024-13579.pdf>

- **2/2024 Lege Dekretua, maiatzaren 10ekoa, turismo arduratsuarena eta turismo-eremuen kalitatea hobetzearena, urtarrilaren 17ko 1/2020 Lege Dekretua aldatzen duena. (2024ko uztailaren 4ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/04/pdfs/BOE-A-2024-13580.pdf>

- **3/2024 Legea, maiatzaren 3koa, etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzkoa. (2024ko uztailaren 29ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/29/pdfs/BOE-A-2024-15575.pdf>

- **4/2024 Legea, ekainaren 20koa, Balear Uharteetako Ekonomialarien Elkargo Ofizialak Balear Uharteetako Merkataritza eta Enpresa Tituludunen Elkargo Ofiziala xurgatzeak eragindako bateratzeari buruzkoa. (2024ko uztailaren 29ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/29/pdfs/BOE-A-2024-15576.pdf>

- **3/2024 Lege Dekretua, maiatzaren 24koa, Balear Uharteetako administrazio publikoen administrazioa sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko presako neurriei buruzkoa. (2024ko abuztuaren 16ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/16/pdfs/BOE-A-2024-16940.pdf>



Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

- 4/2024 Legea, maiatzaren 9koa, tributua-, finantza- eta administrazio-neurriei buruzkoa. (2024ko uztailaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/16/pdfs/BOE-A-2024-14546.pdf>

- 5/2024 Legea, maiatzaren 9koa, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2024ko uztailaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/16/pdfs/BOE-A-2024-14547.pdf>

- 6/2024 Legea, ekainaren 17koa, Gaztela eta Leongo Animalien Osasunari buruzko maiatzaren 19ko 6/1994 Legea aldatzen duena. (2024ko uztailaren 23ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/23/pdfs/BOE-A-2024-15101.pdf>

- 7/2024 Legea, ekainaren 20koa, Gaztela eta Leongo .kultura-ondareari buruzkoa. (2024ko uztailaren 23ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/23/pdfs/BOE-A-2024-15102.pdf>

Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa

- 2/2024 Legea, ekainaren 14koa, Gaztela-Mantxan genero-indarkeriarik gabeko gizarte bat eratzeko urriaren 8ko 4/2018 Legea aldatzen duena. (2024ko uztailaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/20/pdfs/BOE-A-2024-14928.pdf>

- 3/2024 Legea, uztailaren 5koa, Gaztela-Mantxako Gorteetarako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeek eragin zituzten gastuak ordaintzeko kreditu berezia ematekoa. (2024ko abuztuaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/16/pdfs/BOE-A-2024-16939.pdf>



Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- **1/2024 Lege Dekretua**, otsailaren 19koa, etxebizitzaren alorreko presako neurriena. (2024ko uztailaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/13/pdfs/BOE-A-2024-14312.pdf>

- **2/2024 Lege Dekretua**, martxoaren 11koa, Cumbre Viejaren erupzio bolkanikoaren ondoren La Palma uhartearen ekonomia eta gizartea suspertzeko etxebizitza babestuaren arloan presako neurriak hartzen dituena. (2024ko uztailaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/13/pdfs/BOE-A-2024-14313.pdf>

- **1/2024 Legea**, apirilaren 16koa, «Kanaria Uharteetako Unibertsitate Teknologikoa» unibertsitate pribatua aitortzekoa. (2024ko uztailaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/27/pdfs/BOE-A-2024-15509.pdf>

- **2/2024 Lege Dekretua**, maiatzaren 29koa, Cumbre Viejaren erupzio bolkanikoaren ondoren La Palma uhartearen ekonomia eta gizartea suspertzeko lurralde eta hirigintzaren arloan neurriak hartzen dituena. (2024ko uztailaren 31ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/31/pdfs/BOE-A-2024-15709.pdf>

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- **7/2024 Lege Dekretua**, uztailaren 2koa, hondakin-urak saneatu eta leheneratzeko sistema publikoak eta gizarte-zerbitzuak finantzatzeko presako neurriak hartzen dituena. (2024ko abuztuaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/08/16/pdfs/BOE-A-2024-16938.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

- **1/2024 Lege Dekretua**, maiatzaren 28koa, lehorreko mahastien sektorearentzako eta landare-osasuneko elkarte teknikoentzako ezohiko laguntzei buruzkoa, landare-osasunaren arloko aholkularitza teknikoagatik eta jokoaren, administrazio-simplifikazioaren, kooperatiben, tasen eta prezio publikoen arloko neurriengatik. (2024ko uztailaren 6ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/06/pdfs/BOE-A-2024-13826.pdf>



Errioxako Autonomia Erkidegoa

- **3/2024** Legea, ekainaren 25ekoa, 2024-2032 Urtealdirako Errepideen Lurralde Plana onartzen duena. (2024ko uztailaren 5eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/05/pdfs/BOE-A-2024-13673.pdf>

- **4/2024** Legea, uztailaren 1ekoa, Errioxan zerbitzu publikoak hobeto emateko presako administrazio- eta aurrekontu-neurriei buruzkoa. (2024ko uztailaren 7ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/09/pdfs/BOE-A-2024-14006.pdf>

Madrilgo Autonomia Erkidegoa

- **1/2024** Legea, apirilaren 17koa, Madrilgo Erkidegoko Ekonomia Zirkularrari buruzkoa. (2024ko uztailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-14999.pdf>

- **2/2024** Legea, apirilaren 22koa, Madrilgo Erkidegoko ohorezko sariak arautzen dituen. (2024ko uztailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-15000.pdf>

- **3/2024** Legea, ekainaren 28koa, etxebizitza babestua sustatzeko hirigintza-neurriei buruzkoa. (2024ko uztailaren 22ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/22/pdfs/BOE-A-2024-15001.pdf>

Murtziako Erregioko Autonomia Erkidegoa

- **1/2024** Legea, uztailaren 8koa, Murtziako Erregioko Autonomia Erkidegoko Partaidetzari eta Herritarren Partaidetzari buruzko abenduaren 16ko 12/2014 Legea aldatzekoa. (2024ko uztailaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/26/pdfs/BOE-A-2024-15430.pdf>

- **2/2024** Legea, uztailaren 11koa, adingabekoen sektoreetako itun sozialei eta erreformari dagozkien plaza eta zerbitzuen zenbatekoa handitzeari buruzkoa. (2024ko uztailaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/07/29/pdfs/BOE-A-2024-15574.pdf>



JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

EBJAK Iraupen Jakineko Lanari buruzko Esparru Akordioaren 5. klausula interpretatu du. Klausula horren helburua iraupen jakineko kontratuak edo lan-harremanak bata bestearen atzetik erabiltzeko mugak ezartzea da, eta estatuei horri buruzko legezko neurriak hartzea ezartzen die. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren aurka dago, bai eta araudi nazionalen aurka ere; horiek zehapen neurriak ezartzen dituzte elkarren segidako kontratuak edo iraupen jakineko enplegu-harremanak gehiegi erabiliz gero: ukitutako enplegatu publikoak lanpostuan jarraitzea administrazio enplegatzailleak hautaketa-prozesuak deitu eta ebatzi arte, eta prozesu horietarako deialdia egitea, eta konpentsazio ekonomiko bat ordaintzea prozesu horiek gainditzen ez dituen enplegatu publikoari bakarrik, gehieneko muga bikoitzarekin, baldin eta neurri horiek ez badira neurri proportzionatuak eta neurri behar bezain eraginkorrak eta disuasiozkoak 5. klausularen arabera hartutako arauen erabateko eraginkortasuna bermatzeko (66-91 OJ). Eta gehitzen du ezen, zuzenbide nazionalen neurri egokirik ez badago, aipatutako klausularen arabera, iraupen jakineko kontratuak edo lan-harremanak bata bestearen atzetik erabiltzeak eragiten dituen abusuak prebenitzeko eta, hala badagokio, zigortzeko, neurri hau hartu ahalko da: segidako kontratu edo iraupen jakineko enplegu-harreman horiek kontratu edo enplegu-harreman mugagabe bihurtzea, baldin eta mugagabe bihurtzeak ez badakar zuzenbide nazionalaren aurkako interpretaziorik.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:62022CJ0331>

- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2024ko ekainaren 20ko Epaia (C-590/22 errekurtsua)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak irizpideak ezartzen ditu kalte-galera ez-materialen ordaina jasotzeko eskubidea zehazteko, datu pertsonalak zabaltzeko beldurrean oinarrituta.

Auzipetutako kasuan, EBJAK zenbait gai prejudizial aztertzen ditu. Horietan, organo igorleak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 82. artikulua 1. apartatua ezarritakoari buruzko galderak egiten ditu. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du (2016/679 (EB) Erregelamendua).

EBJAK baieztatzen du interesdunak frogatu behar duela kalte eta galera materialak edo ez-materialak izan dituela, eta nahikoa dela datu pertsonalak zabaltzeko beldurra izatea, baldin eta interesdunak behar bezala frogatzen badu beldur hori.



Are gehiago, EBJAk erabaki horretan azpimarratzen du kalte-galerengatiko kalte-ordainaren zerbatekoa zehazteko ez direla aplikatu behar 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 83. artikuluan jasotako irizpideak, eta ez direla kontuan hartu behar erregelamendu horretako arauak zehaztea xede ez duten datu pertsonalen babesari buruzko xedapen nazionalen aldibereko arau-haustea.

<https://eur-lex.europa.eu/eli/C/2024/4695/oj>

- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2024ko uztailaren 29ko Epaia (C-184/22 eta C-185/22 errekurtsioak)

EBJAren ustez, araudi nazional batek aurreikusten badu lanaldi partzialeko langileei aparteko orduengatiko soldata-osagarri bat ordaintzea egoera parekagarrian dauden lanaldi osoko langileentzat ezarritako lanaldi arruntetik kanpo egindako lanorduetarako soilik, tratu hori ez da hain onuragarria lanaldi partzialeko langileentzat. Gainera, araudi hori sexuaren ziozko zeharkako diskriminazioa da, baldin eta frogatzen bada desabantailan jartzen dituela emakume askoz gehiago gizonak baino, eta, era berean, ez da beharrezkoa araudi horrek desabantailan jartzen ez duen langile-taldean, zehazki, lanaldi osoko langileez osatutakoan, gizonen kopurua nabarmen handiagoa izatea emakumeena baino. Tratu txarragoa eta diskriminazioa ezin dira justifikatu honako helburu hauengatik: alde batetik, enpresaburuak langileak beren lan-kontratuetan itundutako lanalditik kanpo aparteko orduak egitera ez behartzeko, eta, bestetik, lanaldi osoko langileei lanaldi partzialeko langileei baino tratu txarragoa ez emateko.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=288855&pageIndex=0&doclang=ES&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=8286184>



Konstituzio Auzitegia

- **86/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 3koa. 2875-2023 babes-errekurtsoa. (2024ko uztailaren 8ko BOE)**

Epaiak berretsi egiten du ordezkari politikoen botoa emateko presentzialtasun-printzipioaren edozein salbuespen behar bezala justifikatu behar dela eta jurisprudentzia konstituzionalarekin bat etorri behar dela, ezohiko egoeren interpretazioari muga argiak ezarrita.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/docs/BOE/BOE-A-2024-13999.pdf>

- **88/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 5koa. 6026-2022 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa. (2024ko uztailaren 8ko BOE)**

Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa aurkeztu da lege honen aurka: Madrilgo Biltzarraren 5/2022 Legea, ekainaren 9koa, Madrilgo Autonomia Erkidegoko hiri-garraioa antolatu eta koordinatzeko azaroaren 27ko 20/1998 Legea aldatzen duena.

Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa ezetsi egiten da; izan ere, erregulazioa Madrilgo Erkidegoak hiri-garraioaren arloan dituen eskumen eskusiboen barruan dago, Espainiako Konstituzioaren 148.1.5 eta 149.1.21 artikuluen arabera, eta ez ditu urratzen ez toki-autonomia, ez berdintasun-printzipioa, araubide juridiko berezia ezartzen baitu hiri-garraiorako eta ibilgailuak gidari eta guzti alokatzeko.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/docs/BOE/BOE-A-2024-15428.pdf>



Auzitegi Gorenaren

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: ATS 6188/2024) Auzitegi Gorenaren autoa. Gizarte-arloko Sala. Prozedura prejudiziala.

Espainiako Justizia Auzitegiak sektore publikoko aldi baterako lan-kontratudun langileen egoerari buruz eman berri duen epaiak zalantzak sortu dituzenez, Auzitegi Gorenak bi gai prejudizial planteatzea erabaki du. Funtsean, galdetu du ea bat datorren EBko Zuzenbidearekin langileen zirkulazio askean berdintasun, merezimendu, gaitasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera hautaketa-prozesua gainditu ez dutenei sektore publikoko langile finkoen izaera aitortzea ukatzen duen jurisprudentzia-doktrina. Eta, subsidiarioki, planteatzen du ea langile horiei gaur egun aitortutakoa baino disuasiozko kalte-ordain handiagoa ordaintzea –20 eguneko soldata zerbitzu-urte bakoitzeko– neurri egokia eta nahikoa den EBren araudia betetzeko sektore publikoan aldi baterako kontratuak bidegabe erabiltzeak eragindako abusuak prebenitzearen eta zehatzearen arloan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a570c7118d361e50a0a8778d75e36f0d/20240604>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 948/2024) Auzitegi Gorenaren 324/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, diskriminatzailea da aldi baterako langileentzat langile finkoekin alderatuz gero, ekonomikoki konpentsatutako opor-denbora ez bada emandako zerbitzu-denboratzat hartzen; izan ere, emandako zerbitzu-denboratzat hartzen da langile finkoentzat, eta Europako araudiak, araudi nazionalaren gainetik lehenesten denak, horri buruz xedatzen du iraupen mugatuko kontratua duten langileak ezin izango direla pareko egoeran dauden langile finkoak baino modu txarragoan tratatu iraupen mugatuko kontratua izateagatik, salbu eta arrazoi objektiboengatik tratatu desberdina justifikatzen bada; baina hori ez da gertatzen aztergai dugun kasuan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/00dd4587df8c8918a0a8778d75e36f0d/20240307>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2361/2024) Auzitegi Gorenaren 625/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 29koa. Gizarte-arloko Sala.

Auzitegi Gorenaren ustez, mugagabe ez-finko bihurtu den lan-kontratudun langile batek ez du eskubiderik lan-kontratudun langileei atxikitako lanpostuak betetzeko lehiaketa batean parte hartzeko; izan ere, aplikatu beharreko hitzarmena betez, lehiaketa horietan langile finkoek bakarrik parte har dezakete. Auzitegi Gorenaren iritziz, langile mugagabe ez-finkoak gaitasun-, merezimendu- eta berdintasun-printzipioetan oinarritutako hautaketa-prozesu bat gaitasun- gabe sartu dira Administrazioan, eta hori aipatutako prozesuetatik kanpo uzteko zilegitasuna ematen duen inguruabar objektibo eta arrazoizkoa da, eta langileen aurkako edozein diskriminazio-zantzu baztertzen du. Eta, ondorioztatzen duenez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziatik ez da inola ere ondorioztatzen langile mugagabe ez-finkoak finko bihurtu behar direnik, bateraezina baita aipatutako printzipioetan oinarritzen den Espainiako administrazio publikoaren autoantolaketa-sistemarekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a2f3cc13bbcf61c9a0a8778d75e36f0d/20240522>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3454/2024) Auzitegi Gorenaren 903/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 11koa. Gizarte-arloko Sala.

Auzitegi Gorenaren ustez, ez du askatasun sindikala urratzen «ordu-kreditua» edo «sindikatu-kreditua» izenez ezagutzen den denboraren erabilera oro har justifikatzea eskatzen duen enpresa-jarduketak (ordu horiek justifikatzen ez badira ez ditu ordainduko). Salaren ustez, oro har justifikatzea eskatzeak ez du eragozten eta ez du hertsatzen langileen ordezkari-tza-eginkizunen garapen askea, eta legegileak lortu nahi duen helburua betetzen du: ordu-kreditu horren legez kontrako erabilera saihestea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f4f6a06353782104a0a8778d75e36f0d/20240701>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3588/2024) Auzitegi Gorenaren 1117/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidea hau finkatu du: komunikazio elektronikoen sareak hedatzea, hau da, zuntz optikoko kableak beste operadore baten kanalizazioetatik edo beste instalazio batzuetatik hedatzea, bai higiezin fatxadetatik, bai barrualdetik, instalazio bat da EIOZaren zerga-egitatearen ondoretarako, eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, instalazio bat egin beharko da. Horrek esan nahi du erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar zaiola zerga ezartzen duen udalari, ez baitu barne hartzen ekipamendu berria sartzea dakarren berrikuntza teknologikoko edo egokitzapen teknikoko jarduerarik. EIOZaren ordainarazpena, auzigaia bezalako kasu batean, ez da kanon gisa hartzen baimena emateko



Zuzentaruaren ondoretarako; izan ere, EIOZak ez du inola ere zergapetzen espazio erradioelektrikoaren erabilera, ezta espazio publikoaren erabilera ere espazio publiko edo pribatuetan sareak edo baliabideak instalatzeko, baizik eta instalazio bat gauzatzean egindako gaitasun ekonomikoaren adierazpena zergapetzen du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/19e92d050b4b7d80a0a8778d75e36f0d/20240705>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3656/2024) Auzitegi Gorenaren 1147/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi duenez, diplomadun-titulua izanik gradu-titulua lortzeko egokitzapen-ikastaro bat gainditzen dutenek ezin dute ikastaro bat edo bestea lehia-titulu gisa eta «prestakuntza akademikoaren» meritu gisa baliatu; izan ere, helburu horietarako ez dira titulu desberdinak, eta merezimendu horren ondoretarako, aipamena oinarrizko titulazio horren osagarritzat hartzen da graduarekin alderatuta; ez da titulazio desberdin bat.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/cee7a8686097ac39a0a8778d75e36f0d/20240711>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3753/2024) Auzitegi Gorenaren 1149/2024 Epaia, 2024ko ekainaren 27koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidea hau finkatu du: ibilgailuak espaloietan barrena sartu eta irteteagatik tokiko tasa bat ezarri ahal izango da, ibilgailuak garajeetara sartzeko zeharkatzen dituen espaloia jabetza pribatuko baina erabilera publiko orokorreko lursail batean egon arren. Izan ere, aztertutako tasaren zerga egitatea gertatzeko erabakigarria ez da espaloien aprobetxamendu handiagoa egitea, baizik eta lokalen jabeek beren garajeetara espaloia zeharkatuz sartzeko egin behar duten galtzadaren erabilera handiagoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/ecb122bddec7141ea0a8778d75e36f0d/20240715>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3827/2024) Auzitegi Gorenaren 1166/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-irizpidea hau finkatu du: alkatearen aldeko zentsura-mozio bat eztabaidatu eta bozkatzeko ezohiko osoko bilkura deitzea *ope legis* gertatzen dela, udal-idazkariak eginbidea egin eta gero, zentsura-mozioak arauzko eskakizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Beraz, ez da izapide-egintza kualifikatu bat aurkaratze isolatuaren ondoretarako, ez baita prozedura hori bete oinarrizko eskubideak babesteko



administrazioarekiko auzien prozeduraren arauen bidez. Gainera, oinarrizko eskubidearen afektazioa ez du deialdiak eragiten, baizik eta zentsura-mozioa onartzeko osoko bilkura egiteak, eztabaidatu ondoren eta, hala badagokio, gehiago oso kualifikatuaren beharra baztertu ondoren. Gainera, deialdia aurkaratu ezin bada, osoko bilkura egin eta mozioa gailentzen bada, ekitaldi horretan alkate hautatu berria izendatuko da. Automatismo horrek erakargarri egiten du deialdi-egintzaren aurkako kautelazko tutoretza eskatzea, hura saihesteko. Hala ere, izapide-egintzak kualifikaziorik gabekoa izaten jarraitzen du, beti eskatu ahal izango baita hori adin-mahaiaik edo, hala badagokio, osoko bilkurak erabakitzen duenari buruz.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/c8b2de533f4105d1a0a8778d75e36f0d/20240719>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3845/2024) Auzitegi Gorenaren 1169/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako errekurtsua, eta deuseztatu egin du maiatzaren 17ko 378/2022 Errege Dekretua, gizarteratze arloan Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan; izan ere, zuzeneko emakidaren sistemaren justifikaziorik eza ikusita, zuzeneko emakidaren oinarri den interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioaren justifikazio-memoria ez du egitura koherenterik, egitura horretan terminologia errepikakor eta nahasgarri bat erabiltzen baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/7ce80988b56cfa60a0a8778d75e36f0d/20240719>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3654/2024) Auzitegi Gorenaren 1165/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: izendapen askeko lanpostu bat uztearen kontra erabakigarritzat alegatzen diren egitateak zalantzazkoak direla argudiatu daiteke. Zalantzazkoak diren edo ez epaileak aztertuko du alegatutakoa kontuan hartuta eta, hala badagokio, froga-kargaren arauen arabera egindako frogak kontuan hartuta; izan ere, askatasunez aukeratutako pertsona kargutik kentzeko, gerora sortutako desegokitasun-epaiketa bat behar da, eta ezin da hori konpondu «askatasunez izendatutakoa, askatasunez kargutik ken daiteke» dioen eslogana erabiliz. Egia esan, egokitasunak zein desegokitasunak balioespen askeko muina dute, eta ezin daiteke judizialki ordezkatu. Hala ere, behar bezala arrazoitzeaz gain, horrek ez du esan nahi kargugabetze kasuan egitate erabakigarrien ziurtasuna planteatu ezin denik, ez baitago materialki baliozkoa den arrazoirik eskainitakoa egiazkoa ez



bada. Formalki egon daiteke, baina egia ez bada, arrazoiaren funtsa urratu egiten da, eta, horrela, aurkaratu egin daiteke, funtzionario-lanpostuak betetzeko moduetako bat baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/30dd908512988019a0a8778d75e36f0d/20240711>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3639/2024) Auzitegi Gorenaren 1164/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, aldi baterako lan-kontratudun langile finko etenen lan-harremanetako jarduerarik gabeko aldia bateragarria da sektore publikoan bigarren jarduera bat egitearekin, baldin eta jarduera hori harreman eteneko lan-jarduerarik gabeko aldiaren barruan egiten bada, eta ez badu eragozten edo kaltetzen jarduera horri dagozkion eginbeharrak zorrotz betetzea, eta ez badu arriskuan jartzen jarduera horien inpartzialtasuna edo independentzia.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/8448fe3582a6188ca0a8778d75e36f0d/20240711>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3659/2024) Auzitegi Gorenaren 1163/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, garai hartan indarrean zegoen araudiaren arabera emandako epai judizialaren betearazpenaren bidez lortutako ordainsari-osagarri bat kentzeko, araudi hori indargabetzen bada, ez da beharrezkoa Administrazioak kaltegarritzat jotzea epai hura betearazteko emandako erabakia, ez baita jatorrian deuseztagarritasun-akatsa duen egintza-kasu bat; izan ere, esku artean dugun kasu honetan aipatutako osagarria arau bidez kendu ondoren, desagertu egin zen araubide juridiko nagusitik. Estatuko funtzionarioen araudia, zerbitzu bereziei buruzkoa, Nafarroako Parlamentuko funtzionario publikoei aplikatu behar zaie, ez baitago aurreikuspen espezifikorik Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan.

<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/0fa82254a64d5e71a0a8778d75e36f0d/20240711>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3698/2024) Auzitegi Gorenaren 1194/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, jabeek administrazio jardulari egin behar dizkioten doako lursailen lagapenengatik monetarizazioko hirigintza-hitzarmen bat baliogabetzat jotzen denean, desberdindu egin beharko da baliogabetasuna suntsiarazpen-arrazoiagatik den (kasu horretan, interesak kaltetuak erreklamatzan dituenetik kalkulatuko dira) edo hitzarmenaren deuseztasun-edo deuseztagarritasun-arrazoiagatik den (kasu horretan, erreklamatuako zenbatekoaren ordainketa egin zen egunetik aurrera kalkulatuko dira interesak).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8c3144b94bbbcb6a0a8778d75e36f0d/20240712>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3837/2024) Auzitegi Gorenaren 1197/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: premiamendu-probidentzia legeak agindutako moduan jakinarazteko Erregioko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ebazpena betearazteke zegoenez, ez zen bidezkoa aitortutako kreditu bat eta betearazpen-aldiko zor bat ofizioz konpentsatzea premiamendu-probidentzia behar bezala jakinarazi baino lehen, horrela, eragotzi egingo baita interesdunak aurkaratze-eskubidea erabiltzea, eta defentsa-gabezia sortuko dio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3c80c73e962d6808a0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3837/2024) Auzitegi Gorenaren 1197/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, hemen aztergai dugun funtzionarioen eskala baten antzekoan sartzeko ez da beharrezkoa sektore pribatuan lanbidean aritzeko eska litekeen titulazio bera izatea, lege-lerruneko arau batek horretarako aukera ematen duelako eta konstituzionaltasuna zalantzan jartzeko arrazoi sendorik ez dagoelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3c80c73e962d6808a0a8778d75e36f0d/20240719>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3843/2024) Auzitegi Gorenaren 1192/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: funtzionarioak gaueko eta jaiegunetako txanda-erregimenean zerbitzuak ematen dituenean, zerbitzu horiek lanaldi arruntaren ordutegiaren barruan ematen badira, funtzionarioak eskubidea du urteko oporraldietan, aldi baterako ezintasun-egoeran, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan ordainsaria jasotzeko; izan ere, horrek dakarren nekagarritasun berezia ordainsarrietan islatu behar da, eta ordainsari-kontzeptu zehatz batean agertzen da. Kontzeptu hori, aitortzen bada, jasotzen den ordainsari arrunt eta ohikoan sartzen da, nahiz eta, izatez, zerbitzu horiek ez diren ematen urteko oporraldian, aldi baterako ezintasun-egoeran, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan. Beste gauza bat izango da zein kontzepturengatik ordaintzen diren edo zenbatekoa nola kuantifikatzen den. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen testu bateginean ez denez horri buruzko ezer aipatzen, tokiko funtzio publikoaren eremuan, aurreko kontzeptuengatik zor diren zenbatekoak erreklamatzeko eskubidearen preskripzio-epaia lau urtekoa izango da, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra kontuan hartuta; izan ere, hori da administrazioekiko kredituen arau orokorra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/06f79759f4c68e23a0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3898/2024) Auzitegi Gorenaren 1205/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, hainbat administrazio publikok erakunde komun bat erabiltzen badute zerbitzu publikoko misio komun bat gauzatzeko, ez da beharrezkoa administrazio publiko bakoitzak bere kabuz dena delako erakundea kontrolatzeko ahalmen individuala izatea, baina ezin da soilik oinarritu dagokion erakundearen kapitalean partaidetza handiena duen administrazio publikoaren kontrol-ahalmenean. Sozietatearen estatutuetatik ondoriozta daitekeenez, erakunde hori hainbat botere adjudikatzailleetako ordezkariak osatzen dute, eta biek batera ahalmena dute edo eragin erabakigarria izan dezakete bai helburu estrategikoetan, bai erabakiak hartzerakoan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bd71823aa7a18cf5a0a8778d75e36f0d/20240724>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3914/2024) Auzitegi Gorenaren 1206/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kasazio-eztabaida herri-lan baten ordainketaren berandutze-interesaren sortzapenaren *dies a quo* eta *dies ad quem* zehazteari buruzkoa da, prezioak berrikusten diren kasu batean.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginaren araudiaren arabera, obrako administrazio-kontratu batean prezioen berrikuspena berandu ordaintzeagatik sortutako berandutze-interesak zenbatzeko honako hau hartuko da kontuan: *dies a quo* delakotzat hartuko da obra-zuzendariak ziurtagiri partzialak ematen dituenetik bi hilabeteko epea igaro eta hurrengo eguna, eta, *dies ad quem* gisa, kontratistak zor duen zenbatekoa jasotzen duen eguna. Banku-transferentzia bidez ordainduz gero, hartzekodunak xede horretarako irekitako kontuan dirua sartzen den eguna, jurisprudentziak horixe ezartzen baitu behin eta berriz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/168d61be35409924a0a8778d75e36f0d/20240726>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3836/2024) Auzitegi Gorenaren 1215/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, zerga-zorren ordainketa zatikatzeko eskaera aurkeztu zenetik sei hilabeteko epea igaro izanak, administrazioaren erantzun espresurik jaso gabe, soilik zehazten du ezetsizat jo daitekeela dagokion errekurtsioa jartzeko, baina ez du inolako ondoriozko sortzen geroratzeko eskatu den zerga-zorren ordainketa eskatzeko akzioaren preskripzio-epea eteteko; izan ere, zerga-zorren ordainketa eskatzeko akzioaren preskripzioa eten dezaketen egintzak zehatz-mehatz deskribatuta daude, eta horien artean ez dago ustezko ezespenik, zeinaren helburua baita soilik interesdunari aukera ematea ustezko ebazpen ukatzailearen aurka egiteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2dcf8d9edfda87cda0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3852/2024) Auzitegi Gorenaren 1226/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, dirulaguntzen iruzurraren delituaren ondoriozko erantzukizun zibila finkatu duen aurretiazko epai penal irmo bat egon denean, Administrazioak akusazio partikular gisa esku hartu duen prozesu penal batean, delituaren ondoriozko akzio zibila gauzatu, eta geroko prozesu batean egikaritzeko akzioak erreserbatu gabe, delituaren ondoriozko erantzukizun zibilari buruzko epai penal kondenatzaileak ebatzitakoa loteslea da



Administrazioarentzat, gauza epaituaren ondorengatik. Beraz, jada ezingo du erreklamatu geroagoko prozesu batean kalte-ordain handiagorik edo berandutzako interesik, eskatu ahal izan zituenean ez bazituen prozesu penalean erreklamatu, dirulaguntzen iruzurraren delituaren ondoriozko erantzukizun zibilak barne hartzen baititu dirulaguntzei buruzko estatuko araudian aurreikusitako berandutze-interesak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/63a382250c3122a4a0a8778d75e36f0d/20240719>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3844/2024) Auzitegi Gorenaren 1223/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: Administrazio Publikoen urei eta ondareari buruzko Estatuko araudia aplikatu behar da uren erabilera pribatiborako eskubidearekin lotuta emandako emakidak azkentzeak dakartzan ondoreak arautzeko, emakida-tituluaren data eta klausulak edozein direla ere. Era berean, Administrazio hidraulikoak, emakida azkentzean, eta emakidadunaren kontura, azpiegiturak eta instalazioak eraisteko betebeharra eska dezake, horrek ez baitu atzeraeraginik eragiten, baizik eta emakida azkentzeko prozedura hastean indarrean dagoen legeria aplikatzea. Emakida-tituluak ezartzen zuenaren arabera, instalazioak Estatura itzuliko ziren emakida amaitzean, eta ez zuen aurreikusten emakidadunak instalazioak eraistea; hala ere, jabari publiko hidraulikoa babesteko aldarrikatutako emakidaren azkentze-prozedura hasi eta ebazteko unean indarrean zegoen legerian oinarritzen da instalazioak kentzeko betebeharra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/de053f97d541ac9ca0a8778d75e36f0d/20240719>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3857/2024) Auzitegi Gorenaren 1235/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, kasu honetan, ebatzi da Gizarte Segurantzaren Administrazioak kotizazio-aktak likidatu zitzakeela, eta horrek berekin zekarrela hitzarmen kolektibo probintzial bat ez aplikatzeko akordio bat legez kanpokoia izatea, zehapen-prozedura bat hasi beharrik gabe edo lan-jurisdikzioan ofiziozko demanda bat jarri beharrik gabe; izan ere, azken batean, ez dago manurik eskatzen duenik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aurretiazko jarduketak egin behar izatea likidazioa egin aurretik, likidazio horrek ez-aplikatze akordio bat edo enpresa-hitzarmen bat ez-zilegitzat jotzen badu. Hala ere, ondorio hori ateratzeko, lan-arloko araudiaren interpretazio prejudiziala egin behar izan da, bai Langileen Estatutuarena, bai Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearena, eta ez da egokia arau horiei buruzko interpretazio-adierazpen orokor bat egitea auzi honetatik harago.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0892fe88e0424272a0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3858/2024) Auzitegi Gorenaren 1234/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: osasun-arrazoiengatik (orain COVID-19aren pandemiagatik) oinarritzko eskubideak murrizteko, ez da nahitaez alarma-egoera egon behar, eta oinarritzko eskubideetatik kanpo, enpresa-askatasunari dagokionez, osasunari eta osasun publikoari buruzko Estatuko araudiak nahikoa arau-estaldura ematen du enpresa-askatasunerako eskubidea murriztu dezaketen neurriak hartzeko, zehaztapen objektiboak, subjektiboak, aldi baterakoak eta kualitatiboak eskaintzen baititu, eta zehaztapen horiek ziurtasuna ematen diote murrizketa edo mugaketa puntual bati, aplikazio-esparrua gutxieneko zehaztasun batekin mugatzen dutelako. Salbuespenezko kasu bat ere aipatzen dute – osasunerako berehalako ezohiko arriskua–, osasun-agintariei ahalmena ematen diena osasun-neurri justifikatu eta arrazoituak hartzeko, egokiak, aldi baterakoak eta proportzionatuak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8139703f32488f2fa0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4006/2024) Auzitegi Gorenaren 1261/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 12koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: tasaren funtsezko elementu bat, hots, zerga-kuota kalkulatzeko beste magnitude batzuei aplikatzen zaien karga-tasa, argi eta garbi zehaztu behar da ordenantzan bertan edo harekin batera argitaratutako eranskinetan. Izan ere, araudiak hala ezartzen du, eta honako datu hau hartzen du abiapuntutzat: ordenantzak ez ditu bereizten erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia, eta, beraz, jabari publikoa



erabiltzeko modu batek zein besteak parametro berberak bete beharko dituzte. Horrenbestez, urratu egiten da zerga-kargaren zehaztapena erabilera pribatiboak eta aprobetxamendu bereziak dakarten intentsitate desberdinaren arabera nahitaez bereiztea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/55a2016e9f936b1aa0a8778d75e36f0d/20240729>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3886/2024) Auzitegi Gorenaren 1256/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi egin du ez dagoela deuseztatzeko legezko funtsezko arrazoirik, ordenamendu juridikoaren aurkako berariazko edo ustezko zerga-egintzei dagokienez, udalak eraikuntza, instalazio edo obraren jabe berriari itzultzeko agintzen duenean, eraikuntza, instalazioa edo obra saldu edo eskualdatu ondoren titular berri baten jabetza izatera igaro baita. Hau da, ez da ordenamendu juridikoaren aurkako berariazko egintza bat, zeinaren bitartez eskubide bat eskuratzen den eskubide hori eskuratzeko funtsezko betekizunak bete gabe, eta horrek erabateko deuseztasuna deklaratzeko aukera emango luke, ez baita horretarako eskatzen diren betekizunetako bat ere betetzen. Are gehiago, ahalmen hori, abstraktuki hartuta, eztabaidagarria balitz ere, ahalmena mugatzeko, auziaren egiteko eta zuzenbidezko zalantza asko hartu beharko lirateke kontuan, eta, beraz, argi dago ez dela bidezkoa argudiatutako erabateko deuseztasunaren arrazoia balioestea. Hasi eta amaitu gabeko obra bertan behera geratu da, eta kasu horretan, *ope legis* gertatzen da lizentzia eskualdatzearen ondoriozko zerga-egoera juridikoan, udalaren ezagutzarekin eta onespenearekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/338836fbd08c6219a0a8778d75e36f0d/20240719>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3886/2024) Auzitegi Gorenaren 1256/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi duenez, errekurtsioan salatutako eremu formal hutsari buruzko eztabaida piztuta, eta kontuan hartuta aurkaratutako erregelamendu-arauak toki-administrazioei eragiten diela, memoria ekonomikoa egiteko eskakizuna zorrotz bete behar da, eta eskakizun hori betetzat jo behar da erregelamendu-arau autonomikoa onartzeko prozeduran memoria ekonomiko bat egiten denean, gastuen aurreikuspena eta araua onartzen duen Administrazioak finantzatzeko dituen bitartekoen aurreikuspena jasota, nahiz eta udalbatzaren erabaki subiranoaren irizpidearen esku utzi erregelamendu-araua betetzea bere gain hartzea, finantzaketa hori onartuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/338836fbd08c6219a0a8778d75e36f0d/20240719>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2546/2024) Auzitegi Gorenaren 1239/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, ezin da erabaki enplegatu publiko baten lan-kontratua finkoa edo aldi baterakoa den antzeko kasuetan lan-arloko jurisdikzioaren epai irmoen irizpideari jarraikiz, horretarako aurreko administrazio-jarduketa irmo eta onartuak berrikusi behar direnean; izan ere, egia da batzuetan bat datozela administrazioarekiko auzien auzitegiak beste jurisdikzio-ordena batzuetan ezarritako irizpidearekin, baldin eta irizpide hori garrantzitsua izan badaiteke gaia ebazteko; baina hori ez da egiten administrazioarekiko auzien ordenan gai prejudizialei buruzko araudi prozesala oinarritzat hartuta, ezta, batez ere, aurreko administrazio-jarduketa irmo eta onartuak ezkutuan berrikusita ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bec517e0ec55568ba0a8778d75e36f0d/20240719>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3840/2024) Auzitegi Gorenaren 1242/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Errekurtso honetan kasazio-interesa duen gaia da zehaztea ea nahitaezko desjabetzeari buruzko araudian aurreikusitako afekzio-sari gisa ehuneko bosta aplika dakiekeen birpartzelazio-proiektu batek ukitutako jabeei aitor dakizkiekeen kalte-ordainei.

Auzitegi Gorenaren interpretazio-irizpidearen arabera, arauz aurreikusitako % 5eko afekzio-saria aplika dakieke birpartzelazio-prozesu batek ukitutako jabeei aitor dakizkiekeen kalte-ordainei, instalazioak, eraikuntzak eta eraikinak zenbatesten direnean, oinarri bera baitago, ukitutako subjektuen arteko adostasunik ezean, finkatu den balioari % 5eko afektazio-saria aplikatzeko. Izan ere, era berean, bere lurzatia hirigintza-egikaritze baten eremuko birpartzelazio-prozedura batera gehitzen duenarentzat, finkaren ondasun osagarri jakin batzuen behin betiko gabetzea gertatzen da, birpartzelazio-eragiketaren beraren ondorioz, non lurzati zaharrak lurzati berriekin subrogatzen diren.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bcf95d6f2320f4cca0a8778d75e36f0d/20240719>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3897/2024) Auzitegi Gorenaren 1240/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen duenez, osasun-zerbitzu publikoaren enpresa adjudikaziodun batentzat lan egindako denbora kontuan har daiteke Administrazio Publikoari emandako aurreko zerbitzuak aitortzeko; izan ere, kontuan hartzen dena erabiltzaileei emandako osasun-zerbitzuaren izaera publikoa da, eta ez erakunde kudeatzailearen izaera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/974d9796575a240ea0a8778d75e36f0d/20240723>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3957/2024) Auzitegi Gorenaren 1273/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak zati batean baietsi du maiatzaren 24ko 407/2022 Errege Dekretuaren aurka (2022rako enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena) eta maiatzaren 24ko 408/2022 Errege Dekretuaren aurka (enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeari dagokion Estatuko Administrazio Orokorrean enplegu publikoa egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena) jarritako errekurtsioa, eta azken Errege Dekretua deuseztat jotzen du soil-soilik Toki Administrazioko idazkarien eta kontu-hartzaileen lanpostuei dagokienez (lehiaketa bidezko hautaketa-sistema izan behar du), ez delako aurreikusten desgaitasuna duten pertsonentzako legezko erreserba, funtzionarioen oinarrizko araudiak ezartzen baitu enplegu publikoko eskaintzetan gutxienez % 7ko kupoa gordeko dela desgaitasuna duten pertsonen artean betetzeko. Arauak ez du zalantzarako tarterik uzten; beraz, legeak bereizten ez baldin badu, geuk ere ez dugu bereizi behar.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/470676194bf17f6fa0a8778d75e36f0d/20240726>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4207/2024) Auzitegi Gorenaren 1271/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du aurkeztutako kasazioa, sinesgarritzat jotzen baititu aurkaratutako epaiaren arrazoibide juridikoak. Arrazoibide horien arabera, ezetsi egin behar dira kontratuaren exekuzioan gertatutako atzerapenen eta luzapenen ondorioz sortutako zeharkako kostuen eta gastu orokorren gehikuntzagatik erreklamatutako kalte-ordainak. Horretarako, kontuan hartu dira, batetik, pilatutako inguruabarrak, bereziki, kontratistak, obrak adjudikatzen dituen erakundeak, burutzeko epea luzatzeko egindako eskaerak, eta, bestetik, aldaketa-proiektua onartu izana; izan ere, aldaketa-proiektuaren bosgarren klausulan xedatuta



dago ez direla prezioak berrikusi behar, ez baita behar bezala egiaztatu kontratistari objektiboki egotz dakioken kalte ekonomikoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dfc05b14280a9583a0a8778d75e36f0d/20240802>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3986/2024) Auzitegi Gorenaren 1263/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 15ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: Datuak Babesteko Agentziak ahalmena du datuen tratamenduan gardentasuna indartzeko neurriak ezartzeko, erabiltzaileen eskubideak babesteko helburuarekin. Gardentasuna izan behar da datu pertsonalak tratatzeko jardueraren printzipio inspiratzailea, eta ezin da izan ukituari eman behar zaion informazioaren zerrenda orokor eta deskriptibo hutsa; aitzitik, dagokion tratamenduaren inguruabar zehatzen arabera egokitu beharko da, eta agintaritzari dagokio printzipio hori kasu jakin bakoitzean nola aplikatu eta egokitu behar den ezartzea. Gardentasunez jokatzeko betebeharra ez da soilik eskatu behar aplikazio bat instalatzen hasten denean, baizik eta funtzionamenduan dagoen bitartean ere eska daiteke, batez ere denboran zehar ere erabiltzailearen datu pertsonalak biltzen badira. Bestalde, pribatutasun-abisuan hasieran emandako gardentasunari buruzko informazioa aldatzen ez bada ere, litekeena da aplikazioa epe luze batean erabiltzen duten interesdunek ez gogoratzea hasieran zer informazio eman zuten edo hasieran emandako baimenaren pribatutasunerako irismena ahaztu izana. Kasu horietan, baliteke tratamenduaren arduradunei mekanismo gehigarriak eskatu behar izatea, interesdunei gogorarazteko noiz jasotzen ari diren beren datuak eta zer informazio tratatzen ari diren. Datuak Babesteko Agentziak gardentasun-printzipioaren irismena zehaztu dezake, baita berme-mekanismo gehigarriak eskatu ere, gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuta. Hala ere, ezin izango da bermeak ez betetzeagatik izandako jokabidea zuzenean zehatu, bermeak ondoren zehaztu baziren eta zehatutako jokabideak egin ziren unean aurreikusi ezin ziren bermeak baziren. Agentziak, ahalmen horiek erabiliz, aldeztu aurretik errekerimendu bat egin behar zion operadoreari, bere jokabidea beharrezkotzat jotzen ziren eskakizunetara egokitu zezan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2bce23a80379aad4a0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3931/2024) Auzitegi Gorenaren 1260/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 12a. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidea hau ezarri du: zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan kendutako zerga-autolikidazio bat zuzentzeko eskaera ez da aurkaratu daitekeen administrazio-jarduketa bat; aitzitik, aldeztu aurretik eskatu beharko zaio administrazio eskudunari autolikidazioa zuzendu dezala eta, hala badagokio, bidegabetzat jo nahi den diru-sarrera itzul dezala, baita zuzenketa-eskaeraren oinarria autolikidazioa egin zen zerga-legearen



balizko konstituzio-kontrakotasuna denean ere; izan ere, kasu horretan, ez da egongo autolikidazioa zuzentzeko eskaerarik, berez, ez da egongo aurretiazko administrazio-jarduketarik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9110eb489cb71646a0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: KAE 3905/2024) Auzitegi Gorenaren 1352/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako errekurtoa, eta berretsi egin du Foru Aldundiari dagokiola egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena, eskumena talde fiskalaren eragiketabolumenaren arabera zehazten baita, eta ez banaka aintzat hartutako erakundeen arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d69800d52b503bd2a0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: KAE 3908/2024) Auzitegi Gorenaren 1318/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudenzia-doktrina hau ezarri du: urriaren 26ko 182/2021 KAE eman zenean aurkaratu ez ziren hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren behin-behineko edo behin betiko likidazioak ezingo dira aurkaratu epai horretan egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioan oinarrituta; era berean, ezingo da autolikidazioak zuzentzeko eskatu horretan oinarrituta, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko Epaia ematean eskaera hori egin gabe bazegoen. Hala ere, posible izango da aurkaratzea edo zuzentzea, administrazio-errekurtoetarako eta administrazioarekiko auzi-errekurtoetarako ezarritako epeen barruan, epai horrek egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioa ez den beste oinarri batzuetan oinarrituta, hala nola, nahitaezko kargapean jarri izana balio-gehikuntzarik adierazten ez duten egoerak, edo zerga-kuota konfiskatzeraino iristea, edo aurkaratzeko beste edozein arrazoi, konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioaz bestelakoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d9f32fa65878a833a0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: KAE 3918/2024) Auzitegi Gorenaren 1328/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren arabera, zerga-arloko arau-hauste bat egin dela ezartzerakoan, interpretazioaren erruduntasuna eta arrazoizkotasuna aztertu behar dira, inguruabar bereziak



eta denbora-mugarri garrantzitsuetan izan zuen posizioa kontuan hartuta, eta, horrela, araua arrazoiz interpretatu den ala ez ondoriozta daiteke.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b2f93164b3384212a0a8778d75e36f0d/20240726>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3923/2024) Auzitegi Gorenaren 1357/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: prozedura alde aurretik hasita eta jakinarazita egon behar da sarrera-eginbidea behar bezala egiteko, baina betekizun hori ez da auto judizial bidez sartzeko baimena emateko betekizuna bakarrik; aitzitik, ikuskapen-prozeduran, betekizun hori eska daiteke ikuskaritzak Konstituzioaren arabera babestutako etxebizitzan legitimoki sartzeko, eta, beraz, ez dago arrazoirik edo inguruabarrik betekizun hori eskatzeko auto judizial bidez sartzeko, eta ez eskatzeko titularraren baimen baliodun ez-akastunaren bidez sartzeko, zeren eta arrazoi eta justifikazio berberak baitaude betekizuna eskatzeko, eginbidea baimenaren bidez egiten denean. Beraz, sarrera-eginbidea egin zen egunean, alde aurretik ikuskapen-prozedura bat egon behar zen hasita eta jakinarazita. Baimena ematerakoan titularrak zehatz-mehatz jakin behar du zer egingo den, eta ez da egon behar titularraren borondate askea oztopatzen duen beste ezer. Era berean, ez da egongo akatsa, indarkeria, larderia edo engainua eragin edo sor dezakeen elementurik; beraz, interesdunak jakin behar du uko egin diezaiokeela eskatzen zaion sarrera eta miaketa baimentzeari. Zerga-administrazioak lortu zuen froga onartzeak eta balioesteak ez du urratzen administrazioarekiko auzien prozesuko bermeen osotasuna; izan ere, bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea urratzen duen akatsaren eta froga lortzearen arteko lotura juridiko bakarra baimen judizial irmoari buruz egiten den balioespina da, sarrera baimentzeko eskaera eskuratzeko baldintzetako bati buruzko interpretazio jurisprudenzialaren bilakaera ikusita. Jurisprudentziaren interpretazioaren bilakaera horrek ez dio eragiten sartzeko baimenaren egokitasunari, beharrari eta proportzionaltasunari buruzko judizioaren funtsezko elementu bati ere, baizik eta zergapekoari ikuskapen-prozedura hasi dela alde aurretik jakinarazteko betekizunari. Bizilekuaren bortxaezintasunerako oinarritzeko eskubidea urratzeko egintzaren eta frogak eta ebidentziak lortzearen arteko lotura naturala eta juridikoa egoteak ez du esan nahi, berez, berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea benetan urratzen denik; beraz, araudiaren aplikazio haztatuak ez du babesten administrazioarekiko auzien epaitegiaren autoan baimendutako sarrera- eta miaketa-egintzan lortutako frogak baztertzea. Sartzeko baimena emateko autoan beste gabezia edo akats batzuk egoteak beste ondorio bat ekar lezake, baina ez da hori ebazten ari garen kasuan planteatzen dena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/02582687293ef60ca0a8778d75e36f0d/20240726>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3954/2024) Auzitegi Gorenaren 1360/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du Europako Parlamenturako hautagai hautetsiak izendatzeko Hauteskunde Batzordearen erabakiaren aurka jarritako hauteskunde-auzietako errekurtsioa, eta berretsi egin du ebazpen hori eta hautagai hautetsien aldarrikapena; izan ere, besteak beste, boto-zenbaketa orokorra Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak egin zuen, inolako irregulartasunik gabe, eta botoak ordezkariak horri buruzko erreklamaziorik egin gabe zenbatu ziren. Gainera, demandan ez da inolako kausalitate-harremanik justifikatzen salatzen duen boto-zenbaketa orokorrean ustez izandako irregulartasunen eta hautagaitzaren alde emandako baliozko botoen emaitzaren artean, eta ez du salatzen prozedurazko irregulartasun horiek eragin zezaketen kalte zehatzik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0c9cf1bfae875e33a0a8778d75e36fd/20240726>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4166/2024) Auzitegi Gorenaren 1324/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezarri duenez, berrikusteko arrazoia dokumentuak agertzea denean, dokumentuak osatzen dituen euskarri materialari dagokio, eta ez haietan jasotako datuei; beraz, paperak egon behar dira ezinbestez edo kontrako alderdiaren ekimenez ezkutatuta edo atxikita, eta ez haien zuzeneko edo zeharkako edukiak, eta horiek beste edozein frogabideren bidez egiazta daitezke.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6e77baa8ddf746fba0a8778d75e36f0d/20240801>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4246/2024) Auzitegi Gorenaren 1028/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 17koa. Gizarte-arloko Sala.

Auzitegi Gorenaren ustez, deuseza da enpresak seme-alaben legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko eskubidea baliatzen duten langileei, batez ere emakumezkoiei, absentismo-pizgarria ordaintzea lanaldiaren arabera. Salak uste du ez duela zentzurik egindako ordu kopuruaren arabera ez den osagarri baten zenbatekoa langileak legezko zaintzagatik lanaldi murriztua duen edo ez duen kontuan hartuta murriztea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/661d3a801b25a78ea0a8778d75e36f0d/20240805>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4173/2024) Auzitegi Gorenaren 1035/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 17koa. Gizarte-arloko Sala.

2023ko ekainaren 21ean, enpresak langileen legezko ordezkartzari jakinarazi zion kontsulta-aldi bat ireki zuela aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batengatik. Enplegu-erregulazio horrek plantillaren % 45,55i eragingo dio. Kontratuak 2023ko abuztuaren 1etik 31ra eten ziren, 2023ko uztailaren 13an adostasunik gabe amaitu zen kontsulta-aldi baten ondoren, pandemiaren eta kostu operatiboen gorakada eta gero enpresak izan zuen egoera ekonomiko txarrarengatik.

Arrazoa eman zaio enpresari, frogatu baitzen prozeduraren baldintza formalak betez lan-kontratuak etetea justifikatzen zuten arrazoi ekonomikoak zeudela. Auzitegiak ondorioztatu duenez, enpresa administrazioarekin negoziatzen saiatu zen kontratuak berrikusteko, eta horrek indartu egin du hartutako neurriaren balioa. Epaitza: sindikatuek jarritako errekurtsioak ezestea, eta berrestea aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen legezotasuna.

Epaia azpimarragarria da arrazoi ekonomikoen justifikazioaren azterketa sakonagatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten testuinguruan, baita enpresaren eta administrazioaren arteko negoziazioan fede ona balioesteagatik ere, eta horrek eragina izan dezake etorkizuneko aldi baterako enplegu-erregulazioetan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/221a959d45d5088ba0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4199/2024) Auzitegi Gorenaren 1329/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: Administrazioaren aurrean egindako kreditu-eskubidearen lagapenean translazio-eraginkortasunik eza dago, harik eta ziurtagiriak ematean Administrazioarengandik kobratzeko eskubidea finkatzen den arte; izan ere, ziurtagiriek kontratistaren betebeharrak bete direla eta obra-kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen dute, eta, azken batean, Administrazioaren ordainketa-betebeharra zehazten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4923222b6dbb5fbea0a8778d75e36f0d/20240802>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4204/2024) Auzitegi Gorenaren 1362/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: arkitektura-, ingeniari- eta aholkularitza- eta hirigintza-zerbitzuen kontratazio publikoko arau espezifikoek esan nahi dute arkitektura-zerbitzuen kontratazioa prestazio intelektualtzat hartzen dela, arau horretan esleipen-irizpideei buruz jasotako espezialitateak aplikatzerakoan; esaterako, honako hau ezartzen da: xedetzat prestazio intelektualak dituzten kontratuetan, kalitatearekin lotutako irizpideak gutxienez eskaintzen balioespenean esleitu daitekeen puntuazioaren % 51 izan beharko dira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/369795f1daa637eba0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4287/2024) Auzitegi Gorenaren 1352/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: lege-esparru argia dago erantzukizun solidarioaren modalitate hori aplikatzeko baldintzetan dauden pertsonen erantzukizun solidarioaren kasuak aplikatzeko, zergapekoaren ondasunak ezkutatzeko (zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk, baita toki-ogasunetakoak ere) kausatzaileek edo laguntzaileek duten erantzukizun solidarioari buruz. Horrenbestez, erantzukizun solidarioaren kasuak aplikatu ahal izango zaizkie ordaintzeke dauden izaera publikoko eskubideen ordaintzari buruz araudian deskribatutako inguruabarren bat duten pertsona edo erakundeei, enbargatu edo besterendu ahal izan diren ondasun edo eskubideen balioaren zenbatekoraino, eta erantzukizun hori deklaratzeko ZLOan eta hura garatzeko araudian aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko da. Aurreikuspen hori toki-ogasunen eremuan aplikatu behar da, Toki Ogasunen Legearen testu batekin egiten duen igorpenaren ondorioz, eta alderdi errekurtsogileak ez du zalantzan jartzen edo indargabetzen udal-administrazioak erantzukizun solidarioa deklaratzeko betetako prozedura funtsean bat datorrela araudian xedatutakoarekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5c0626511e1cc4b2a0a8778d75e36f0d/20240809>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3984/2024) Auzitegi Gorenaren 1304/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: arau-baldintzak bete eta egiaztatu ondoren, eta baimena eman ondoren, C) ataleko baliabideak ustiatzeko emakida bat eskualdatzearen eraginkortasuna eskritura publikoa aurkeztu zenetik hasiko da. Eskritura publikoa behar bezala formalizatuko da eta baimenaren baldintzekin bat etorriko da, dagozkion zergak ordainduta. Une horretatik aurrera, eskualdaketa erabateko eraginkortasun



administratiboa hartu du, eta ondoren inskribatzea Administrazioaren ardurapeko betebeharra da eskualdaketa publikotasunaren ondoretarako; beraz, eskualdaketa erregistro-liburuan ez inskribatzeak ez du eraginik arestian adierazitakoaren arabera gauzatutako eskualdatze horren eraginkortasun administratiboan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4c6a330d08c80c9aa0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3985/2024) Auzitegi Gorenaren 1303/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-irizpide hau berretsi du: ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasiera plangintza-tresnaren zirriborroaren atariko fasean kokatu behar da, eta hasiera hori ezin da planaren izapidetzearen ondorengo une batean gauzatu. Izan ere, ingurumen-ikuspegia planaren izapidetzearen ondorengo faseetan sartu behar da hasieratik, atariko fase horretatik aurrera. Izan ere, araudiak alternatibak ingurumen-ikuspegia kontuan hartuta aztertu behar direla ezartzen du, zirriborroaren atariko faseetik hasita, eta, horrela, indartu egiten da ebaluazio horren prebentzio-funtzioa (prebentzio-funtzioa ebaluazioaren oinarri den zuhurtasun-printzipiotik ondorioztatzen da). Baztertu egiten da atzerakadarik ezaren printzipioa ez dela errespetatu ulertu ahal izatea, hirigintza-plan bat ingurumen-arrazoiengatik deuseztat jotzearen ondorioz aurreko plan bat berrikusi delako, bi antolamendu-tresnetako aurreikuspenen ingurumen-ikuspegitik konparaziozko azterketa materialik egin gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5c53bce4cebc7b4ba0a8778d75e36f0d/20240726>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4188/2024) Auzitegi Gorenaren 1308/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau ezarri du: Arkitektoen Elkargo Ofizialen Andaluziako Kontseiluak konpentsazio edo gordailu bat ezartzen badu Kontseiluaren organoen erabakien aurkako gora jotzeko errekurtsoen edo berraztertze errekurtsoen ebazpenean kautelazko neurriak izapidetzeko, funtzio publikoak betetzeagatik tasa bat ezarriko da, eta lege-erreserba eta tasei eta prezio publikoei buruzko Estatuko araudiak onartzeko ezartzen duen prozedura aplikatuko zaizkio; izan ere, zuzenbide publikoko korporazio batek zuzenbide publikoko erregimenean zerbitzu bat emateagatik tasa bat da, erabakiak edo egintzak administratiboki berrikustea eskatzen duten administratuen babesarekin lotutako prestazio bat, korporazio horiei dagozkien eskumenei erantsitakoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/95ec43a3e8610b74a0a8778d75e36f0d/20240802>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4209/2024) Auzitegi Gorenaren 1390/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: auzi horretan zerga-administrazioak lortu zuen froga onartzeak eta balioesteak ez du urratzen administrazioarekiko auzien prozesuko bermeen osotasuna; izan ere, bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea kaltetzen duen akatsaren eta froga lortzearen arteko lotura juridiko bakarra baimen judizial irmoari buruz egiten den balioespena da, sarrera baimentzeko eskaera eskuratzeko baldintzetako bati buruzko interpretazio jurisprudenzialaren bilakaera ikusita. Jurisprudentziaren interpretazioaren bilakaera horrek ez dio eragiten sartzeko baimenaren egokitasunari, beharrari eta proportzionaltasunari buruzko judizioaren funtsezko elementu bati ere, baizik eta zergapekoari ikuskapen-prozedura hasi dela alde zuzenetik jakinarazteko betekizunari. Bizilekuaren bortxaezintasunerako oinarritzko eskubidea urratzeko egintzen eta frogak eta ebidentziak lortzearen arteko lotura naturala eta juridikoa egoteak ez du esan nahi, berez, berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea benetan urratzen denik; beraz, prozesuko fede onaren eta leialtasunaren printzipioaren aplikazio haztatuak ez du babesten administrazioarekiko auzien epaitegiaren autoan baimendutako sarrera eta miaketa egintzan lortutako frogak baztertzea. Sartzeko baimena emateko autoan beste gabezia edo akats batzuk egoteak beste ondorio bat ekar lezake, baina ez da hori kasu honetan planteatzen dena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e2022634c8dbeb99a0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4212/2024) Auzitegi Gorenaren 1383/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du aurkeztutako kasazioa, Estatuko abokatuak amore eman duelako; izan ere, erantzule solidarioei ordaintzeko eginbeharra betearazteko preskripzio-eparearen kontaketa ezin da eten zordun nagusiaren aurrean egindako jarduketengatik, salbu eta etendura –lehenago esandakoa errepikatu behar dugu, autoaren beraren arabera, ordainketa eskatzeko ahalmenarena– aurretik erantzuletzat jo denari zuzentzen bazaio; izan ere, deribazio-egintza formala gauzatu arte ezin da zentzu hertsian zergapekoa terminoa erabili, ezta erantzule edo erantzukizun terminoak ere. Erantzukizun solidarioaren deribazioa deklaratzeko ahalmenaren eta jada erantzuletzat jotakoari ordainketa eskatzeko ahalmenaren artean korrelazio bat dago –ekintza desberdinak eta elkarren segidakoak dira–; izan ere, legearen arabera, etendura eragiten duten egintzak desberdinak dira kasu batean eta bestean, beraz, jada deribatua dagoen zor baten erantzuleari kobrantza eskatzeko bakarrik da egokia eta eraginkorra diru-bilketa egintzen etendura.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2f63b6a40c3256eba0a8778d75e36f0d/20240802>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4213/2024) Auzitegi Gorenaren 1371/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: urriaren 26ko 182/2021 KAE eman zenean aurkaratu ez ziren hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren behin-behineko edo behin betiko likidazioak ezingo dira aurkaratu epai horretan egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioan oinarrituta; era berean, ezingo da autolikidazioak zuzentzeko eskatu horretan oinarrituta, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko Epaia ematean eskaera hori egin gabe bazegoen. Hala ere, posible izango da aurkaratzea edo zuzentzea, administrazio-errekurtsoetarako eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoetarako ezarritako epeen barruan, epai horrek egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioa ez den beste oinarri batzuetan oinarrituta, hala nola, nahitaezko kargapean jarri izana balio-gehikuntzarik adierazten ez duten egoerak, edo zerga-kuota konfiskatzeraino iristea, edo aurkaratzeko beste edozein arrazoi, konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioaz bestelakoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/955a5ef942f4ce00a0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4161/2024) Auzitegi Gorenaren 1379/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Hugo jauna 2021eko otsailaren 22an zigortu zuen Madrilgo Probintziako Trafikoko Buruzagitzak, eta martxoaren 2an jaso zuen jakinarazpena. Berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen 2021eko apirilaren 5ean, Erregistro Elektronikoa Komunaren bidez, baina maiatzaren 18an ez zen onartu, epez kanpo aurkeztu zuela iritzita; izan ere, Epaitegiak ebatzi zuen epea Probintziako Trafikoko Buruzagitzan errekurtsoa apirilaren 6an jasotzen zenetik zenbatu behar zela.

Arrazoi eman zaio errekurtsogileari; izan ere, auzitegiak ondorioztatu du auzialdiko epaitegiak epeen zenbaketari buruz egindako interpretazioa ez zela zuzena izan, ez baitzuen aintzat hartu erregistro elektronikoa aurkezteko data. Epaia akats judicialaren demandaren baiespena da, eta adierazten du Epaitegiaren epaia oker eman zela, epeen zenbaketari buruzko araudia oker aplikatu zelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/756c2bc56d0ddd92a0a8778d75e36f0d/20240801>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4183/2024) Auzitegi Gorenaren 1373/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako errekurtsua, eta berretsi egin du estatu legegilearen ondare-erantzukizunagatik kalte-ordainen eskaeren ezespena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez; izan ere, ordenamendu juridikotik zergaren manu jakin batzuk kentzeak ez du esan nahi zuzenbidearen aurkakoa denik hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga gisa zenbateko jakin batzuk ordaintzea, edo zenbateko horiek, baliokidetasunagatik, benetako kaltea direnik ondare-erantzukizunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko, zerga-antolamenduan ezarritako frogabideen bidez egiaztatu behar da zerga-egitatea ez dela gertatu, edo zerga-egitatearen zenbatekoa ez denean Administrazioak zenbatespen objektiboko metodoarekin ezarritakoa, edo aplikatutako kalkulu-arauak okerrak zirela. Alderdi horietako bat bera ere ez da egiaztatu prozeduran, auzi-jartzaileak ez baitzuen abiarazi zerga-jarduketaren aurkako errekurtsuaren prozedura.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6452e92efd0504eca0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4191/2024) Auzitegi Gorenaren 1386/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpide hau ezarri du: arau autonomikoak aplikatu behar zaizkien desjabetze-kasuetatik kanpo –horiei begiratu beharko zaie, baldin eta autonomia-eremuko antzeko batzordeen osaera erregulatu badute, eta kasu honetan ez da halakorik gertatzen–, desjabetzea sustatzen duen lurralde-administrazioa jo behar du lotutzat arau bidez aurreikusitako balorazio-batzordeak, batzorde horrek atzerapenengatik sortutako berandutze-interesak ordaintzeko erantzukizuna bere gain hartzeari dagokionez; horrek esan nahi du Espainiako Institutuak ez duela berandutza-interes horiek ordaintzeko erantzukizunik, batzorde horrek ez baitu atxikipen organikorik, Desjabetzeko Probintzia Epaimahaiarekin gertatzen denaz bestera, ez baita zuzena Espainiako Institutuari atxikitzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6452e92efd0504eca0a8778d75e36f0d/20240802>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4222/2024) Auzitegi Gorenaren 1381/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak baietsi egin du jarritako errekurtsua, eta baliogabetu egin du errekurtsogileak zigor-arloko epaitegi baten aurka aurkeztutako erreklamazioaren ondorioz egindako aurretzako jarduketak artxibatzeke agintzen zuen ebazpena; izan ere, auzi-jartzailearen erreklamazioak izaera bikoitza zuen: bata jurisdikzionala zen, eta Kontseiluak ez zuen horretarako eskumenik; eta bestea datuen zaintzaren bermeari buruzkoa, zeina berari baitagokio, eremu jurisdikzionaletan datuak babesteko agintaritzea den aldetik. Ebazpenak lehenengo alderdiari baino ez dio erantzun, eta ez dio erantzun datuak babesteko agintaritzea gisa duen eskumenari. Bestalde, zalantzarik gabe, organo judicial baten aurrean identifikatutako pertsonen lekukodeklarazioen grabazioak datu pertsonalak dira, eta datuak babesteko araudiak babesten ditu. Beraz, araudi horrek datuen kontserbazioari eta zaintzari buruz jasotzen dituen aurreikuspenetatik eta jarduketetan jasota dauden egitateetatik (auzigai izan ez direnak) ondorioztatzen denaren arabera, ez dirudi egiazki jasota dagoenik ikus-entzunezko grabazioak edo epaitegian egindako deklarazioetako batzuen transkripzioak non dauden –horien artean, errekurtsogilearena berarena–, eta horregatik, ikerketa-eginbide gehigarriak egin dira gertatu diren inguruabarrak zehazteko eta datuak babesteko araudia urratu den jakiteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9bab5dd635233754a0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4261/2024) Auzitegi Gorenaren 1391/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: 2003/96/EE Zuzentaraua estatu kideentzat salbuespen zuzena eta ez-borondatezkoa da, behar bezain zehatza eta baldintzarik gabea, eta goranzko eragin bertikal zuzena du. Horrez gain, 15/2012 Legeak, jasangarritasun energetikorako zerga-neurriei buruzkoak, ezarritako nahitaezko salbuespena kentzea elektrizitatea ekoizteko edo elektrizitatea eta beroa batera sortzeko erabilitako gas naturalarentzako, ez da oinarritzen 2003/96/EE Zuzentarauak arauz eskatzen dituen ingurumen-politikako arrazoiengan (bigarren esaldia). Arau nazional hori Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela uste da, ez baitu betetzen 2003/96/EE Zuzentzarauko bigarren esaldia, hau da, nahitaezko salbuespenaren salbuespena ingurumen-politikako arrazoiengan oinarritzen dela, eta, beraz, ez da beharrezkoa arazo prejudiziala planteatzea. Arau orokor gisa, epaile edo auzitegi eskudunak Justizia Auzitegiari Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari buruzko arazo bat planteatzeko betebeharra badu ere, hau da, arazo prejudiziala, bere epaitza eman ahal izateko horri buruzko erabaki bat beharrezkotzat jotzen badu, EBJAren doktrinak berak betebeharrak horretatik salbuesten ditu birbidalketa beharrezkoa ez den kasuak, hemen gertatzen den bezala, argitutako egintza baitago. 2003/96/EE Zuzentarauak ezarritako nahitaezko salbuespenari dagokionez argitutako egintza egotea EBJAren jurisprudentzia baten ondorio da, zalantzarik



gabeko irizpide argiak ezartzen baititu. Arau nazionala Europako zuzenbidearekin bat ez datorrela ezarri ondoren, ondorioa nahitaezko salbuespena baztertzeko duen arau nazionala ez aplikatzea izan behar da, eta, beraz, azken hori aplikatzea elektrizitatearen eta beroaren ekoizpenean kargapetu zen gas naturalari. Jakina da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia-irizpide jarraitu baten arabera, Estatuko jurisdikzio-organismoek ez dutela aplikatu behar barne-ordenamenduko arau juridikorik, Europar Batasuneko Zuzenbideak xedatutakoa urratzen baldin badu. Hori arau nazional guztiei dagokie, baita lege-lerruna dutenei ere. Gauza jakina da, era berean, lehenetsun-printzipioaren jokoaren arabera, Europar Batasunaren arauak eraginkortasun zuzena izan behar duela, eta, kasu honetan, elektrizitatea edo beroa sortzeko erabiltzen den gas naturala ezartzetik nahitaez salbuestea eragin zuzena, behar bezain zehatza eta baldintzarik gabea duen araua da (3. OJ). Boto partikularra eman da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/eb7ed18fc80516efa0a8778d75e36f0d/20240805>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3859/2024) Auzitegi Gorenaren 1259/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Kontratu publiko bat suntsiarazteko prozedura bati aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztean datza jurisprudentzia eratzeko kasazio-interesa. Kontratu publiko hori Sektore Publikoko Kontratuen 2011ko Legearen testu bateginaren indarraldiarekin sinatu zen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez (SPKLTB) onartua, baina haren ebazpena indarrean dago jada Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL).

Aztertzerakoan, bat dator errekurtsogilearekin kontratua suntsiarazteko espedientea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera izapidetu behar zela dioenean, eta honako hau dio: «Prozedura hastea eragiten duten suntsiarazpen-arrazoi materialak esleipen-deialdiaren unean indarrean zeuden kontratu publikoen araudi erregulatuaren arabera arautzen badira ere, prozedura horrek indarrean dauden arauak bete beharko dituen unean».

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2a05f983e6fd495da0a8778d75e36f0d/20240719>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4211/2024) Auzitegi Gorenaren 1394/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: metropoli-eremu batek ezin du, ondasun higiezinaren gaineko zergaren errekarua arautzen duen zerga-ordenantzaren bidez, errekarua horretatik salbuetsi ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dauden eta salbuetsita ez dauden subjektu pasibo jakin batzuk, hala nola landa-ondasun higiezinak; izan ere, aztertutako ordenantzak egiten duen bazterketa hori ez dago baimenduta arauz, orokortasun-printzipioaren aurkakoa da, onura fiskala dakar TLOn xedatutakoa alde batera utzita, eta diskriminatu egiten ditu ondasun jakin batzuen titularrak. Arrazoi berberengatik, metropoli-eremu batek ezin du, ondasun higiezinaren gaineko zergaren errekarua arautzen duen zerga-ordenantzan, errekarua horren kuota osoa murriztu, araudian jasotako aurreikuspenaren babesean. Nolanahi ere, ez da bidezkoa ondasun mota jakin batzuk, hala nola ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak, murrizketa-sistema horretatik kanpo uztea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9bfcd26ad230884ba0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4218/2024) Auzitegi Gorenaren 1406/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: tributuaren subjektu pasiboarekin egindako itun edo kontratu baten ondorioz hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordaintzera behartuta dagoenak legitimazioa du zerga-autolikidazioa zuzentzeko eta hark eragindako balizko diru-sarrera bidegabekoa itzultzeko eskatzeko, bateraezinak baitira administrazio-legitimaziorik eza eta legitimazio judizialik eza (aurrekoarekin nahitaez lotua, gure jurisprudentziak aitortutakoa); izan ere, *stricto sensu* zergapekoak eta subjektu arau-hausleak ez direnek ezin dute itxita izan azterketa egiteko eta beren interes legitimoak asetzeko bidea, are gehiago kontuan hartuta gero existitzen ez den zerga gisa jasotako zenbateko bat ordaindu dela, eta hori jasotzeko bidegabeko aberastasuna eragiten duela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2bd14be82e78ae1ba0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4197/2024) Auzitegi Gorenaren 1399/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazi duenez, bidaiarien errepide bidezko garraio erregularreko zerbitzu publikoa kontratatzeko lizitazio-prozedura batean, esleipenerako eskatzen den autobus-kopuruari buruzko kaudimen teknikoaren betekizuna egiaztatzea, eta baldintza-agiriak horri buruz egin ditzakeen zehaztapen zehatzak alde batera utzi gabe, kanpoko bitartekoen bidez lor daiteke kaudimena integratzeko mekanismoaren bidez. Mekanismo hori, beraz, kontratua



egiteko eskatzen den kaudimen teknikoa osatzeko beste modu bat da, baterako proposamenaz bestelakoa, eta Salak ez du uste haren edukia edo hura arau desberdinetan arautzea arrazoi balioduna denik kaudimen teknikoa egiaztatzeko bi moduak onargarritzat eta zuzenbidearen araberakotzat ez jotzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6cb106b4fc10324fa0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4203/2024) Auzitegi Gorenaren 1400/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, ABEEen konkurrentzia onartzen duten kontratazio publiko bat arautzen duten baldintza-agiriak ez aurkaratzeak ez die eragozten kontratazio-organoari, ezta, hala badagokio, jurisdikzio-organoei ere, egiaztatzea lehiaren eskubidearen arau-hausterik egon den ala ez, ABEE jakin baten osaeraren eta eskaintzen ezaugarri berezietan oinarrituta; izan ere, kontua ez da ABEEak lehiaketa zehatz horretan onartu behar ziren ala ez, hori baita errekurtsogileek baldintza-agirietan aurkaratu ahal izango zuten gauza bakarra, baizik eta ABEE jakin bat eta aukera horren babesean aurkeztutako eskaintza lehiaren zuzenbidearen aurkako iruzurra ote ziren.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/110f7b0f6f594b13a0a8778d75e36f0d/20240802>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4189/2024) Auzitegi Gorenaren 1407/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidea hau ezarri du: kasu honetan, inguruabarrak kontuan hartuta, kasazio-errekurtsua erabil daiteke administrazio-zehapen baten baliozkotasuna berresten duen auzialdiko epaia berrikusteko; hala ere, behin aztertuta errekurtsogileak aurkaratutako epaiari zuzentzen dizkion gaitzespenak, horietako bat ere ez dago justifikatuta, eta, beraz, kasazio-errekurtsuak ezin du aurrera egin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/40aac9457fbf1f2fa0a8778d75e36f0d/20240802>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4252/2024) Auzitegi Gorenaren 1404/2024 Epaia, 2024ko uztailaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

